


ttüpi-ttapa

1995eko abenduak 21 • 172. zenbakia

Argia Sariak 95

Prentsa Idatziazen Saria

TTIPI-TTAParentzat



HERRIETAKO ZINE ARETOAK

EZEZAGUN ETA DEFIZITARIOAK

BORDATXO

EGUBERRIAK

LARUNBATA

23

EGAN

25

EGUBERRI
EGUNA

DISKOTEKA
EGUBERRIETAKO SASKIEN ZOZKETAREKIN

LARUNBATA

30

ELURTE

31

URTE
ZAHAR
GAUA

GAU OSOAN TXANPAIN BOTILEN ZOZKETA
ELURTE TALDEAREN EMANALDIA

LARUNBATA

6

ERREGE EGUNEKO BESTA

Los Dinosaurios



ZORIONAK

Prentsa idatziko saria

TTIPI-TTAParentzat

Zazpigarren urtez banatu diren sari haven helburua euskal komunikabideetan izan diren lanik onenak eta profesional bikainenak saritzea izaten da. Aurtengoan, prentsa idatziaren alorrean eman ohi den saria TTIPI-TTAPA aldizkariak jaso du.

Epaile lana Arantzazu Loidi, Ines Intsausti, Martxeli Sagastune eta Edorta Aranaren esku egon zen. Beraiek aukeratu zituzten telebista, irratia, prentsa idatzia eta publizidade alorrean aurtengoz izan diren lanik onenak eta profesional bikainenak.

Horrela bada, ETBko Txiskola umore programarentzat, Pello Zabalak Euskadi Irratian egiten duen musika saioarentzat, prentsa idatzian TTIPI-TTAPA aldizkariarentzat eta publizidadean Euskaldunon Egunkariak egin berri duen promozio kanpainarentzat izan dira aurtengo sariak. Merezimenduzko sariak ere banatu ditu Argia aldizkariak. Lehenbizikoa AEKrentzat izan da, eta bigarrena, Goenkaleko Txapas eta Maria Luisarentzat.

HIRUGARREN ALDIZ SARITUAK

TTIPI-TTAPA lehen aldiz karrikaratu zenetik 1981ean, orain-



Asko dira TTIPI-TTAParen lan taldea osatzen dutenak. Argazkian ageri direnak dira hoietako batzuk.

go hau da jaso duen hirugarren saria. 1990ean Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkartek emanik, Lamien Urrezko Orrazia izeneko saria esku-

ratu zuen. «Nafarroako eskualde euskalduneari egini-ko lana» eta «hiruhilabete-karia hamabostekaria bihurtuz eginiko hobekuntza» sa-

ritu zen orduan. Berrikiago, 1991ko abenduan, Arkupeak Erretiratu eta Adintuen Elkartek ere saritu egin zuen TTIPI-TTAPA aldizkaria.

Ez da ez erraza herrietako zine aretoen egoera. Aretoak izan badaude bainan momentuz bakarrik Doneztebe eta Leitzakoa dira programazio finko eta luzea eskaintzen dutenak. Gainerakoetan bakarrik noiz behinka izaten dute programaziorik, eta kasu guzietan, asteburu eta jai egunetara mugatuak.

TESTUA :
JOXEMANUEL IRIGOIEN

ZINE ARETOAK

Pelikulak emateko aretoak dituzte Beran, Elizondon, Goizuetan, Doneztebe eta Leitzan.



DONEZTEBE. Zine areto hau 1988an hasi zen negu eta udaberriko programazioa eskaintzen. Udalarena da eta bere esku dago funtzionamendu osoa.



LEITZA. Negu eta udaberriko programazioa eskaintzen duen laugarren denboraldia da aurtengoa. Etxea udalarena da eta bere funtzionamendua Aurrera Elkartearen esku dago.

HERRIETAKO ZINE ARETOAK EZEZAGUNAK ETA DEFIZITARIOAK

«Udalaren laguntza izanez gero, Aurrera prest dago zinearekin segitzeko»

NOLA BALORATZEN DITUZUE AZKEN URTEOTAKO ZINE DENBORALDIAK?

Iazkoa ekonomikoki defizitario atera zen eta zortzirehun mila pezetako zuloa gelditu zitzaigun, bainan azkeneko momentuan, larehun mila pezetako dirulaguntza eskuratu zuen Udalak. Jende aldetik ez dakit asko den edo, baina pelikula bakoitzeko 130 pertsona edo biltzen dira, eta Leitzan baterako nahiko ongi da. **AURTEN ZER PLANTEMENDUREKIN HASI ZARETE?**

Aurten zalantza izan genuen pelikulak asteburu jarri edo bakarrik hamabos-

tetik behin. Azkenean, udalak animatuta, asteburu bi pelikula botako ditugu.

ZEIN PELIKULA KLASE DIRA JENDE GEHIAGO EKARTZEN DUTENAK?

Akzio asko dutenak. Jende larria mugitzeko hobe erromantikoak. Beti ere, izen haundikoak eta berriak diren pelikulak. Kontua da hauek izaten direla garestienak, eta bakarrik alkilerrak ehun mila pezeta inguru balio duela, garrarioak eta zergak aparte, eta hori estal-

Zinea gustoko duenak ez du erreparo haundirik izaten arratsalde batean autoa hartu eta Baiona, Irun,

Donostia, Tolosa eta Iruñeko zine aretoek eskaintzen duten aukereta baliatzeko. Herri bakoitzak duen kokapenaren arabera, joera desberdinak ditu horretarako; Sara aldetik Baionara edo Donibanera; Leitzan, Baztan eta Malerreka aldetik Iruñera nagusiki eta gutiago Donostiara; Bortziriki eta Goizueatik Donostiara edo Iruñera.

Testuinguru horretan, ez da batere erraza gure herrietan zine programazio iraunkorrek antolatzea eta urtea joan eta urtea etorri animoak erre gabe irautea. Leitzako Mallo Agirre eta Doneztebe-ko Mariaje Ganboa bat heldu dira zinezalearen mugikortasuna azpimarratzeko. «Ugari dira autoa hartu eta Iruñera edo Donostiara joaten diren herritarrak».

LEITZA ETA DONEZTEBE

Elizondon, Beran, Goizuetan, Donezteben eta Leitzan zine aretoak izan arren, azken bi herrietan bakarrik dute zine programazioa iraunkorra astebururako. Programazioa, halere, negu partera dago mugatua azken urteotan. Donezteben azaroaren lehen asteburuan hasi ziren eta Martxo azken asteburuan aki-



MALLO AGIRRE

Leitzako Aurrera elkartearen kidea

tzea zaila izaten da. Pelikula zahar edo izen gutxikoekin ez da jenderik etortzen.

BOTA BEHAR DITUZUE PELIKULEN PUBLIZIDADEA EGITEN DUTZUE?

Normalean kartel haundiak egiten ditugu Leitzako dendetan jartzeko. Oso pelikula berezia baldin bada Uitzan eta Areson ere jartzen ditugu, eta aldeberean, pare bat hilaletako programa osoa duen papera buzoiratu egiten dugu etxetik.

AURRERANTZEAN SEGITZEKO ASMORIK?

Aurten desastre haundirik ez bada gertatzen bai. Gu boluntario moduan gaude eta pixka bat udalaren esku dago.

tuko dituzte emanaldiak. Leitzan, bestalde, abenduan hasi eta apirila bukatu arte segitzeko asmoa dute.

Elizondon 'El Pilar' zine aretoa dago. Egoitza pribatua da eta kapazidade dextekoa. Areto horretaz baliatuz, urte batzuetan Baztandarrren Biltzarra elkarteak antolatatu izan ditu zine emanaldiak, batez ere eguberri inguruan. Aurten ez.

Berako Isidoro Fagoaga Kultur Etxeko aretoa ez da berez zine aretoa, baina batzutan erabiltzen da horretarako. Berriki, sei asteburutan bertze hainbertze pelikula botatu ditu Guraso Elkarteak eta dirudienez hilbeltzatik aitzinera bertze sei pelikula botatzeko asmoa dago.

DEFIZITARIOAK

Alde ekonomikoari dago kionez, bai Doneztebekoa eta bai Leitzakoa, biak defizitariorak dira.

Doneztebeko kasuan, dena udalaren esku dago. Udal Kultur Batzordearen bitartez eta interesa duten herritarren parteharmentarekin aukeratzeko dira filmeak. Hoiek alokatzea, operadore eta sarerra saltzaileen kontratu eta soldadak, aretoaren garbiketa... guziaz udalak ordaintzen ditu.

Leitzako kasua desberdina da. Aurrera Elkarteak alokatzen ditu filmeak eta baita ordaindu ere. Dozena inguru bolondres ditu elkarte honek lan guziaz egiteko. Gauzak horrela, Doneztebekoarekin konparatuz aurrekontu txikiago dute, baina halerre, defizitariora da. Sortzen den defizita, iaz zortzirehun mila pezetakoa, udalak estali zuen osorik.

FILMEEN AUKERAKETA

Leitzan bi filme proiektatzen dituzte astebururo. Mallo Agirrek dioenez «Pelikula bat pertsona larrientzat eta bestea umeentzat. Larrientzat ekartzen duguna ostiral gauean eta igande arratsetan ematen da, eta umeentzat ekarritakoa igande arratsaldeko 4,30etan». Denboraldiaren

DONEZTEBE ETA LEITZAKO ZINE ARETOAK

LEITZAKO ZINEA

Kapazidadea:	350
Sarreraren Prezioa:	(*)
• Helduak	400 Pta.
• Haurrak	150 Pta.
Denboraldiaren Iraupena:	
• Abendutik apirilera	5 hilabete
Emanaldiak:	2 filme asteburuan (umeentzat eta larrientzat)
Ordutegiak:	
• Ostirala	22,00etan
• Igandea	16,30etan
• Igandea	19,00etan

DONEZTEBEKO ZINEA

Kapazidadea:	218
Sarreraren Prezioa:	(*)
• Helduak	450 Pta.
• Haurrak	450 Pta.
Denboraldiaren Iraupena:	
• Azarotik martxora	5 hilabete
Emanaldiak:	Filme bat 3 aldiz
Ordutegiak:	
• Larunbata	22,30etan
• Igandea	17,00etan
• Igandea	20,00etan



(*): LEITZA: Iruñeko Kutzaren 'New Leader' txartela dutenek sarrerak balio duenaren erdia ordaintzen dute.

DONEZTEBE: Nafarroako Aurrezki Kutzaren 'Megaplan' txartela dutenek sarrerak balio duenaren erdia ordaintzen dute.

hasieran, «jendea biltzeko, izena duten pelikula berriak ekartzen ditugu. Sasoia aurrera doaien neurrian, pixka bat denetatik ekartzen dugu. Zailena, halere, umeena izaten da. Marrazkiak ekarrita, 8 urtetik beherakoak oso ongi, eta hortik gorakoak aspertuak, eta pelikula ekarritik gero txikiak dira aspertzeko direnak. Euskaraz gutxi, apenas baitago pelikularik». Doneztebeko Mariajek kontatu digunez «denboraldiaren hasieran peliku-

lak aukeratu eta zuzenean kontratatzen ditugu hiru etxe banatzaileek eskeintzen dizkiguten pelikulen artekin nahi ditugunak.». Euskaraz Maité eta Behiak proiektatu dituzte aurten. Dena den bai Doneztebekoak eta baita Leitzakoak ere, kexu daude euskarazko filmategiaren urritasunaz. «Euskarazko pelikulak ekarri nahi ditugu baina ez dago kasik deus».



FELIPE GANBOA, DONEZTEBEKO ZINE OPERADOREA.

Eguberriaren hurrengo ziklo berezia izanen da Donezteben. ■

«Igande arratsaldeko 8etako emanaldira joaten da jende kopururik haundiena»

NOLA HASI DA AURTENGO DENBORALDIA?

Pelikulen arabera gorabeherak izan dira. Banaz bertze 200 pertsona inguruk ikusi dute pelikula bakoitza. Pelikula garesti batzutan, *Batman Forever* eta *Alerta Máxima II*, etorri da jendea bainan ez espero genuen haina; 200 sarrera azpitik gelditu dira. Orain arte jende gehiena Maité ikustera etorri da, 200 baino gehiago.

ZENBATEKO KAPAZIDADEA DU ZINE ARETOAK?

Berrehun eta hemezortzi aulki ditu. Baina arestian aipatu ditudan kopuruak, asteburuko hiru emanaldiak batera hartuta dira, ez emanaldi bakoitzean.

ZEIN EMANALDIETARA JOATEN DA JENDE GEHIEN?

Igande arratsaldeko 8etako emanaldira joaten da jende kopururik haundiena. Gero larunbatekoa izaten da normalean, eta jende guttien igande arratsaldeko 5etako.

JENDEARI DAGOKIONEZ, BADA DIFERENTZIARIK EMANALDI BATETIK BERTZERA?

Denetarik izaten da, baina igande arratsaldeko 5etako Doneztebeko gaztetxoak etortzen dira gehienbatean, larunbatean bikoteak eta jende helduak batez ere, eta igande igande arratsaldeko 8etan jende gaztea.

GURASOAK ETA?

Batzutan bai bainan ez sobera.

ETA IKUSLE GEHIENAK DONEZTEBEKOAK DIRA EDO KANPOKOAK ERE IZATEN DIRA?

Azpitarratzekoa da inguruko herrietatik etortzen den jende kopuru altua, Donamariatik, Saldistatik, Baztandik, Bertizaranatik... Igande arratsaldean, 8etan, gehienak kanpokoak izaten dira.



Mª JESUS GANBOA
Doneztebeko zine aretoaren arduraduna

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.200 ALE
ARGITARATZAILEA: TTPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

zuzendaria: Joxemanuel Iri-
en. **Publizitatea:** Miren Kar-
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
ozena, Joxemanuel Irigoien.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
txea, Juainas Paul, Kristina
Boan, Bittori Telletxea.
Erriemaileak: Joseba Azpiroz,
Esteban Arozena, Juana Mari
Aizaz, Ainhoa Mutuberria, Iban
Asi, Txema Aldabe, Pello Etxe-
a, Txema Urroz, Patxi Otxan-
arena, Ixabel Maia, Josune Etxe-
ste, Pablo Mendiburu, Joseba
arabide, Alizia Olaizola, Margari
xenike, Koro Irazoki, Mixel
erendiain, Jacqueline, Elixabet
urria, Garbiñe Maiz, Oskar
operena, Alberto Sansiñena,
ello Apezetxea, Aitor Arozena,
istina Boan.

laboratzaileak: EHNE Nafa-
ba, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-
a, Joxe Javier Etxeberria,
antxa Zabala...

primategia: Gertu (Oñati).
tipi-ttapa ez du bere gain har-
en derrigorrez, aldizkarian adie-
zitako erranen eta eritzien eran-
ukizunik.

akunde Laguntzaileak: Bera,
itza, Goizueta, Areso, Baztan,
dzubi, Zugarramurdi eta
arako udalak, Bortzirietako
uskara Mankomunitatea,
alerrekako Zerbitzu Mankomu-
atea, Zugarramurdiko Akelarre
kartea...

GAURKOTASUNEN GAIA

CSI-Transformados: Sestaoko langile sobranteak honat ere ekarriko

Gauzak argitasunez eta alde guziak nego- ziazuz egin behar dira



Enrike LOPEZ
ELAko ordezkaria

ELAk bezala sin-
dikatu nagusi
guziok ditugu
akordio globalak sinatuak afe-
ra honen inguruan Korpo-
razioarekin. Horren arabera,
Sestaoko langile sobranteak,
CSlko bertze lantegietan ko-
lokatzea aurrikusia dago. Kasu
horretan daude Antsioko lan-
tegiaren lan egiten duten 81 lan-
gile. Erretiroa hartzeko ez du-
te adinik, eta hortaz, CSIk di-
tuen bertze lantegietan egiten
zaie lekua. Egoera honek
Lesakan aldi baterako kontra-
tuekin dauden langileetan era-
gintzen du. Gauzak horrela, CSI-
ko zuzendaritzari zera propo-
satu diogu: lantegi honen pro-
dukzio aurrikuspenak bete-
tzeko behar den gutieneko lan-
gilegoa zehaztea, eta langile
hoiek fijoak izan daitezela.
Ebentualak momentuko pro-
dukzio beharra betetzeko era-
biliko ziren bakarrik, eta ez
orain bezala, ebentualak seku-
lako multzoa direla. Baldintza
hoietan sinatu genuen akor-
dioa. Azkenean honat zenbat
etorriko diren ez dago jakite-
rik. Bakar batzuk etorriak di-
ra. Orain ikusi beharko gau-
zak nola egiten diren.

Horrek hemen sortuko duen kaltea erregulatu behar dugu



Julian MITXELTORENA
LABeko ordezkaria

Lehenik eta
behin, afera uler-
tzeko azken ur-
teotan labe garaiek izan duten
prozesu osoa kontutan hartu
beharra dago.
LAB bezala, Sestaotik etorri-
ko diren langileen aurka ez du-
gu deus egiteko asmorik.
Hoi en etorrerak hemen supo-
satuko duen kaltea, orde, erre-
gulatu nahi dugu nolabait ere.
Langabetuen kopurua gehitu
daiteke, eta ebentualen kopu-
rua ttikitu, handi etortzen ba-
dira langileak. Oreka hori bi-
latu beharra dago. Nola? Hori
da komitean aztertu behar du-
guna. Oraindik ez digute in-
formatu noiz etorri behar du-
ten eta zenbat. Orduan, etorri
aitzinetik planteatu nahi du-
gu, ea komite bezala prest gau-
den neurri batzuk hartzeko;
ebentual batzuk fijo egin,
Lesakakoak eta ingurukoak le-
hentasuna izan dezatela au-
kera dagoenean sartzeko... eto-
rriko direnei kontra egin ga-
be, bainan zuzendaritzari kon-
trapartida batzuk ateriz. Azken
finean, gure asmoa da komi-
teak berea egitea eskakizun
kontsentsuatu bat, gero, zu-
zendatitzari pasatzeko.

Bertakoak bertan lan egiteko neurriak hartu behar dira



Juan Tomas ETXABIDE
CSlko langilea

Sestaotik dato-
zen langileen
kontra deus ez
dugula garbi utzi behar da,
beraiek baitira kalte haun-
diena jasoko dutenak, be-
raien ingurutik aldatzera
bortxatu baitituzte. Hemen,
berri, 40-60 langile etortzea
-oraindik ez dago garbi-,
bertako bertze horren bertze
ebentual guttiago sartuko di-
rela erran nahi du. Errekako
langabezia ikusiz, kaltea
ezin da ukatu. Helburua, es-
kualdean bizi ahal izateko
neurriak bilatzea izan behar
du eta inork ez dezala, bor-
txan bederen, herritik kan-
pora joan behar izan. Kontu-
an hartu behar da, bai indus-
tria, bai nekazarien egoera
Maastrich-ko akordio on-
dorioa dela. Nabari da kapi-
talak eta enpresak ez duela
eskrupulorik langileekin.
Hemen, ofizialki, politiko eta
sindikatu mailan ez da behar
bezala borrokatu beraien he-
rrietan gelditzeko. Bertze
arazoak ere hor daude, el-
kartasun falta erakusten du-
ten ordu extrak, fabrika
sartzeko dagoen klientelis-
mo politikoa...

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



Olentzero izanen banintz...

Eneritz MITXELENA

Neurria: Berezia
Doinua: Nola, nola, nola

Ni Olentzero izanen banintz denentzako a zer pozak neretzat berdin izanen ziren etxeok nahiz arrotzak batzuentzako panpinak eta bestentzako ikatz poltsak aitonentzat galtza motzak ai zer opari panpoxak nahiz ta kaleak ongi astindu neguko haize zorrotzak nik neuk berotu eginen ditut haurtxo guztien bihotzak.

Ni Olentzero izanen banintz nolako etorkizuna argi bizitan jarriko nuke munduko iluntasuna eta gainezka emanen nuke falta zaigun maitasuna bakartiari laguna eriari osasuna tristeari poztasuna eta argitu gure herriak desio duen eguna Herri zahar honi bakea eta presoei askatasuna.

Epaiketarik ez!

Abenduaren 21ean, Asier Arburua, Etxalarko gaztea epaitu behar dute intsumitua izateagatik. Epaitzen duten 2. etxalartarra izanen da. Bere 'delitua' ejertzitoei, kasu honetan ejertzi to espainiarrarekin ez kolaboratzea omen da. Ejertzitorik gabeko mundu bat amestea, ejertzitorik gabeko Euskal Herri libre batean amestea. Ez dugu uste arazo hau bakarrik gazteena denik, gizarte guztiaren arazoa da eta denok erantzun behar dugu. Aipatu nahi dugu ere, Zigor Kode berriarekin zigorrak gogorragoak izanen direla, nahiz eta kartzela zigorrik ez izan. Akautzeko, gure elkartasuna adierazi nahi diogu Asierri eta intsumitu guztiei. Aupa Asier! Gora EH Intsumitua!

ASIERREN LAGUN BATZUK
ETXALAR

Leitzako harrobiak

Azpimarragarria eta kezagarria bilakatzen ari da zenbaitek bi harrobiei tratamendu desberdina zein interes nabarmenarekin ematen dioten. Illogika honen aurrean, bi harrobiei buruzko irtenbidea lantze-

ko garaian 'rasero' berdinetik begiratu beharko litzateke garbi. Albiño herri-
tik kanpo badago ere, biztanleekiko tratamendua ez al luke berdina izan behar Leitzatik hain hurbil dagoen Kordobango harrobia eta urrutiago dagoen Albiñoko harrobiaren artean? Albiñoko harrobiaren inguruetan bizi garenok 2. mailako biztanleak ote gara?

Behin galderatxo hauek aurrean utzi eta gero, harrobi hauek egiteko proiektuei nere aurkako iritzi borobila laburki arrazoit nahi nuke hainbat alor aztertuz:

A. Batek baino gehiagok iñozokeriatzat hartzen badu ere, ingurugiroari dakarkion kaltea neurgaitza da.

B. Honekin nolabait lotuaz harrobien esplotazioak ingurugiroarekin dakarren buztan luzea ere izugarria suertatuko da. Jende gehienak hautsarena du buruan eta hor dago hautsa baino garrantzitsuagoa bilaka daitkeen isurketen arazoa. Nola kontrola daitezke erretara desbideratzen diren isurketa 'kontrolatuak'?


C. Bestalde, askok kontutartuko ez badu ere 'contaminación acústica' ere badugu: tiroak, makinaren soinuak eta abar. Batek baino gehiagok arrazoi eskatzat hartuko badu ere (herri-
tik 800 metro exka-

xetara hasten direnean ikusi behar) ezin ahanztz daitesoinu pixkoat ateratzen zuelako duela denbora gutxi Leitzako Mandriladorekin gertatu dena.

D. Askok harrobia defendatzeko garaian trafikoa kontrolatua izanen dela hartzen dute banderatzat, hots, egunean kamioi kopuru zehatza igaroko dela herri-
tik eta kitto. Gaur jaiok ez garenaz, lotsagarria da harrobia defendatzekoan horrelako debate eta arrazoi antzuetan sartzea. Enpresa batek beharrezko baimenak lortu eta inbertsio haundi bat egin eta gero, ez dizkio bere buruari harriak botako esplotazioa mugatuz: eskua eskeini eta besoa hartu.

E. Batzuen debate faltsu eta demagogoarekin jarraituz, 'agintzen' dituzten lanpostu(?) 'posible' eskas batzuen orde-
z herria hainbeste urtetan hipotekatzea arriskutsua dela uste dut. Azkenik, arazo honek herri osoa ikuitzen duenez nabarmena da herrian eritzi kontrajarriak daudela eta irtenbide gisa interesgarria litzateke herriari galdetzea zer nahi duen. Hara hemen demokraziak duen islada-
pen garrantzitsuena (erreferenduma) aurrera eramateko aukera paregabea.

BASERRITAR BATEK



LESAKA

ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9,

☎ 627584 - LESAKA

☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxoak
- ➔ Ate korredoroak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria, 67 - ☎ 637264



Euskaldunon Egunkaria (Nafarkaria) 95-XII-8

«Nafarroako Gobernuak emandako sariak Nafarroa osoaren errekonozimendua esan nahi du, urte askotan egin dudana lanaren onartzea da. Induraini emandako sari bera jasotzek asko adierazten du.»
Idoia MARIEZKURRENA
Beintza-Labaiengo atleta
Nafarkaria 95-XII-8

«Leitzalderako egin dudana dokumentazio

lana salakuntza bezala egiten dut, hainbeste abertzaletasun, herrigintza eta hitz polit erabiltzen ditugunean, nola da posible herri-literatura kasik ukitu gabe egotea?»

Patziku PERURENA
Idazlea
Argia 95-XII-10

◆ Zubitarrak ijitoak al dituk?

◆ Batzuk bai, ni nahiko zuria atera ninduken azalez. Ijtoa nauk herriari eta herriko gau ze diodan atxekimendu aldaezinagatik.

◆ Iñautetan mozorroa edo joareak paratu?

◆ Mozorroa, dudarik gabe, ideia on bat izanez gero.

◆ Artopila edo piper opila?

◆ Edozein, baina hutsopilik ez.

◆ Ligatzeko errezeta bat?

◆ Gure amatxik ere nik baino hobeagoak edukiko dizkik oraindik?

◆ Klaseak emateko errezeta?

◆ Erakusten dukena papera kolorezkoan bildua eta gainean lazito batekin ematea ikasleari, opari bat bailitzan.

◆ Bizitzeko, borda bat edo pisua?

◆ Teilatu gorria, pareta xuriak, harrizko eskinak, egurrezko leihoak, balkoi-tik mendi tontorra ikusi eta atzeko atletik baratzerara salto egin.

◆ Jazteko, amerikana edo txupa?

◆ Iratze usaina botatzen duena gainekoa eta larru usain pittin batekoa azpiko nikia.

◆ Frutarik goxoena?

◆ Sagarra edo ezpain bi.

◆ Lo egiteko jantzirik edo deus gabe?

◆ Udan larrugorritan eta neguan mendiko galtzerdiekin.

◆ Aberatsak edo pobreak?


◆ Aberatsak bezala bizi diren pobreak, zerbait nahi al duk? galdetu eta kafetto batera gonbidatzen hautenak.

◆ Hirietako neskak edo herrietakoak?

◆ Ez dik inporta gustora egonez gero.

◆ Ze politika interesatzen zaik?

◆ Askatasuna eta zoriona bilatzen dituen.



Lino ELIZALDE

IKako irakaslea
Zubietarra



- Eraztunak, belarritakoak, pultserak, kateak, erlojuak...
- Bitxitegian era guztietako konponketak

KANTONBERRI, 8 • TFNOA: 630751 • BERA
MERKATARIK • TFNOA: 451519 • DONEZTEBE

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 • BERA



24 ORDUKO BUS ZERBITZUA

- 17 jarlekuko mikrobusa
- 55 jarlekuko autobusa
- Afari, despedida, sagardotegietara joateko

☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

PIKABEA *pinturak*
Lehen Molinero
izandakoak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA

Bera

Urte zaharra agurtu eta berriari ongietorria emateko ekitaldiak

Eguberri bezperako Olentzeroak eta Urte Zaharreko 'Diostesalbe' eta 'Glin-Glan' izanen dira aipagarrienak

KRISTINA BOAN

Abenduaren 24ean, arratsaldeko 3etan aterako da Berako OHOk hiru ikastetxeetako hurrek prestatutako olentzeroa, ohiko ibilbidea burutzeko. Gure Txokoa elkartek prestatutakoak, berriz, 6etan emanen dio hasiera ateraldiari. Horretarako, asteazkenetik hasi eta ortzirala arte biltzen ari dira kantuak entsaizteko.

Urte Zahar egunean ere Guraso elkarteak eta Gure Txokoa antolatutako ospakizunak izanen dira. Arratsaldeko 3etan haurrak aterako dira urtatsa eskatzera balloi azpitan, 'Glin-Glan' kantatuz. Gau partean, Gure Txokoa koak izanen dira 'Diostesalbe' kantatuko dutenak karrikaz karrika. Urtero bezala Zahar Etxean izanen dute lehen geldialdi.

Azken urteetan egi-

Elizako organoa konpontzen ari dira

Joan den urtean mendeurrena bete zuen organoaren moldaketa lanak aitzinera segitzen dute. Urrian hasi ziren eta otsaila alderako lanak akautuak izanen omen dira. Muelle eta fieltroak moldatzeaz gain, tubo guztiak desmontatu dira eta orohar goitik behera guztia moldatzen ari dira.

Lanok bukatzean, Organuzaleen elkarrekin kontzertu ziklo bat eskeintzeko asmoa du. Berako organoa da, adituen usuez, Nafarroako organo erromantikoen artean onenatariko bat.



Moldatu ondotik kontzeru zikloa izanen da

ten den gisara, Errege bezperan jaiotza iza-

nen da Altzateko plazan eta kabalgata ere

aterako da, ttikienen ilusiorako.

ttipi-flash

Udal Kultur Batzordea

Bilera abenduaren 22an burutuko da arratseko 7,30etatik aitzinera Herriko Etxean.

Hiltegiko kuota

onartu berri ditu udalak. Aziendak etxean hiltzeko buruko 594 pezeta ordaindu beharko da. Bildots buruko 294 pezeta, behiak kanalean 17 pezeta eta zerriak kanalean 11 pezeta. Prezio hauei IVA gehitu behar zaie.

Igerilekuen erabilerarako kuota

Uda osoko kuota 4.125 pezetakoa izanen da 16 urte-tik goitikoentzat, 1.650 pezetakoa 10-16 urte artekoentzat eta 7-10 urtekoentzat 700.

LABE ZAR
© 631076 • BERA

LOZOTEGI - JAZONE
LEKUZ ALDATU GARA
ORAIN...
Altzate, 19 • 630786 • BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

E D A R I A K

● ● ●

○ ○ ○

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

Lesaka

Eguberri inguruko ekitaldiak ospatuko dira egunotan

Eguberri bezperako Olentzero lehiaketa eta Errege bezperako Kabalgata izanen dira aipagarrirenak

AITOR AROZENA

Negua eta hotzarekin batea, Eguberri bezpera honetan tenoreak agintzen dizkigun ekitaldiak burutuko dira herrian.

Hasteko, Olentzero eguna izanen da abenduaren 24an. Goiz goizetik hasita, azken asteotan soto eta bajere-tan moldatutako olentzeroak hartuta eskean ibiliko dira neska-mutilak baserri auzoetan.

Eguerdi partean herri-rua bueltatuko dira, ordu horretan izanen baita Plaza Zaharrean Olentzero eta jaiotza lehiaketa. Urtero bezala, hiru mailatan banatuko dira olentzeroak eta maila bakarrean jaiotzak. Justo Agirretxe kultur zinegotziak adierazi digunez, "sariak zertxobait haundituko dira aurtent, sail bakoitzean bortzehuna pezeta". Arratsalde, herrian barna ibiliko dira eskean. Arratsalde, Tan-



Abenduaren 30ean, Deabruak Teilatueta izeneko taldeak 'Itsumutugor' diska aurkeztuko du Atxaspi ostatuan

turumairu ikastolako Olentzeroa eta Amnistia-aren aldeko batzordeak egindakoa ere aterako dira.

Urtezahar gauean abesbatzakoak *Dios-tesalbe* kantari aterako dira eta Errege bezperan, Errege kabalgata aterako da Irain eskolatik eta jaiotza biziduna izanen da, urtero bezala, plazan.

Udal taldeen erabilerarako ez dago gelarik Herriko Etxean

Herriko Etxearen barnean bulego bat izateko HBk egindako eskariak ezezkoa jaso du berriro. Talde honetako kideek diotenez, ongi antolatuz gero bi gela libre gelditzen ahal dira, udal talde ezberdinek beraien lana burutzeko. Alkateak, or-

dea, gela guztiek beraien erabilera dutela uste du. Eraberean, momentu honetan bete eta gaizki antolatua dagoen artxiboa haunditzeari eman zion lehentasuna alkateak. Udal taldeei gelak banatzea bere ardura dela gaineratu zuen.

ttipi-flash

Xalto Saria

Xabier Silveirak irabazi du aurtent ere Nafarroako 25 urtetik behitiko bertsolari- zuzendutako txapelketa. Bigarrena Iñigo Olaetxea izan da.

Atxaspi ekitaldiak

Abenduko 'zubi' luzean hasi eta hainbat ekitaldi burutzen ari dira Atxaspi ostatuan. Abenduaren 21ean txistorrada, 22an barrikotea eta 30ean 'Deabruak Teilatueta' taldearen kontzertua izanen da.

Yoga taldea

Urtarriletik aitzine-ra yoga talde berri bat egiteko asmoa dago. Interesatuak 637080 telefonora deitu (Isabel). Yoga taldeak Alondigan egiten ditu bere aktibitateak.

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

LORA DENDA
TXIRULA
Bitirio 627542
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEREAU
Jatetxea • Hotela
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 • LESAKA



J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

Etxalar

Herriko bigarren intsumiso epaiketa

Abenduaren 21erako deitu du juezak Asier Arburua

PELLO ETA ALBERTO

Intsumisorik izan da herrian, lehen ere. Baina zigor berezirik gabe gelditu dira, nahiz eta soldaduskara ez joan, ezta honen ordezko zerbitzura ere. Oraingo honetan, soldaduskarako deia aintzat hartu ez zuelako deitu du juezak Asier. Bere burua intsumiso aitortzeagatik bertze bigarren epaiketa jasaten ahal du, gero. Asierrek, berriz, bi gauzak oraingo epaiketan erabakitzea nahi du. Juezak hori onartzen duen ikusi behar. Asierri elkartasuna adierazteko sinadurak bildu dira herrian. Eta gazteak zerbait gehiago egiteko asmotan ere badabiltza.



Larraburua Elkarrekin bere eguna ospatu zuten Xabierko San Frantsisko egunean. Aurten 80 urte bete dituztenei omenaldi eta oparia eskaini zien: Kontxesi Mitxeltoarena, Maxima Zubieta, Juana Danboriena, Anuntxi Agesta, Juana Berrueta eta Ignazio Urangari. Ageri den bezala, azken biak ordezkoa bidali zuten.

Ura garestia

Azken hiru urteetan metro kubikoko 15 pzt ordaindu dugu herriarrok. Gastuak sarriak baino haundia-
goak direnez, metroko

2 pezeta goititu du Udaltzazak. Denetara, ba, metro kubikoko 17 pezeta. Hiru hileko gutienekoa, lehengo berrazken da: 30 metro.

Orizkiko bide bazterrak arriskutsuak

Sagartzazu, Orizkigaina edo Urtsumiatzan jendeak autoak bide bazterrean uzten di-

tu maiz, inguruan oinez ibiltzeko edo lanen bat egiteko. Eta frankotan jasaten dituzte nahigabeak, autoa ireki eta baliodunik badago eraman egiten baitute. Eta, deus ez eramanagatik, sarraila edo kristala xehetuarekin gelditzen da jabea.

Eskolako idorpea

Aspalditik moldatu beharra, abenduko barkazio egunetan egiten dute. Nafarroako Gobernuak dirulaguntza emateko prisa haundirik ez bazuen ere, orain berehala burutua ikusi nahi du. Aurtengo gastuetan sartzeagatik, nonbait.

HIRU LAGUNAK

TAILERRAK 3L



- Kotxe, kamioi eta gabarren txapa eta pintura
- Mekanika eta elektrizitatea
- Pintura kabina
- Auto berriak eta erabiliak
- Errueda zulatuen konponketa
- Kamioien olio aldaketa



Otsango auzoa
☎ eta Faxe: 63 74 36
LESAKA



*Eguberri eta
Urteberri Zoriontsua
opa dizuegu*

Igantzi

Ehun lagunetik goiti bildu ziren Zahar Etxeko lehene bazkarian

Esperantza Iguzkiagirrek egunotan ematen ditu azken klaseak

OSKAR TXOPERENA

Hainbertze urte ikastolan eta azken urteotan eskolan klaseak eman ondotik, Egu-berrietarako hartzen du jubilazioa Esperantza andereñoak. Abenduaren 12an hartu zuen haurren omenaldia.

❖ **Olentzeroen** pres-taketak hasi dira han eta hemen, haurrak garraio lanetan ikusten baitira nonahi.

❖ **Zerri puxkak** Lesa-kako Osasun Zentrora eraman beharko dira astelehenetik ortzegu-nera, 9etatik 12etara.

❖ **Abenduaren 23an** Igantzin eta 30ean Arantzan izanen dira abesbatzaren kontzertuak. Igantzikoan, urtero bezala, zare eder baten zozketa egingen dute.



Haurrek arratsalde polita pasatu zuten Auskalo taldearen tailerrekin. Giro fresko xamarra bazen ere, zangoluzek paratu eta berotzeko modua bazen, nahi izanez gero



Jende aunitz ibili zen Biltokin Kultur Egunean, bertan egin baitzen laboreen erakusketa zoragarria, Koldo Ameztoiren ipuin kontatzea eta eltxaur eta gazta jatea bertsolariekin



Bestetan euriarengatik jokatu gabe gelditu zen partidua Kultur Egunean jokatu zuten Otxoteko-Castro eta Mikelperezina-Goñik. Aitzinetik, gazteek jokatu zuten.



Zahar Etxean jokaturako mus, puntto eta partxis txapelketetako sarituak ageri dira. Eta bat akautu orduko bertzea martxan, orain hasten baita Biltokin urtero jokatzeko dena.

**BOTXO
ostatua**

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

GLOBAL

- Hizkuntz egonaldiak atzerrian urte osoan zehar; ikastaro klasiko eta espezializatuak, Paying-guest, Au-pair, udako ikastaroak, Unibertsitateak
- Itzulpenak: FRANTSESA/INGELES/ALEMANIERA

Colon Pasealekua 36, 1.D - Tel. eta Faxe: 943-614698 - 20301 IRUN



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305

AYLA ARGAZKILARITZA

- Estudioa
- Erreportaiak
- Ezkontzak
- Argazki materiala
- Fotokopiak
- Bideoa
- Markoak



Bixente Taberna
Bidasoa karrika, 8
BERA ☎ 630075



Irungo errepeidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Lethoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrakziak
Pilareak	

'Abajardua' Mazorra
Zahar antzekoa Txapentua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

Arantza

Aurten gazteak santaketan ibiliko dira etxez etxe

Eguberrietan ohikoak diren ekitaldien ondoren, mendi mutilen besta ospatuko da Errege egunean Aterpen

GARBINE ETA ELIXABET

Neguairekin batera Eguberriak ere iritsiko dira. Urtero bezala, hasiak dira herrian Eguberrietako ospakizunak prestatzeko lanak. Kabalgata ere egingen da Errege bezperan. Bertzalde, herriko gazteek aurten tradizioa berreskuratzeko asmoa dute eta urteko azken egunetan Santaketan (Santa Ageda) ibiliko dira, herriko etxe eta baserri guztietan barna. Biltzen den diruarekin festaren bat antolatzeko gogo dago, seguruenik herriko bestetan. Eskean parte hartu nahi duenak Zuzañenea osatuan eman behar du izena. Gazteek orain dela lau-paborts urte



Dagoeneko prestatuak izanen dira aurtengo olentzeroak

ibili ziren azken aldiz Santaketan. Ea aurten ere ongi ateratzen den eta jende aunitzek parte hartzen duen.

Olentzeroa abenduaren 24ean aterako da. Eskolaren inguruan

bortz bat talde ateratzen dira eta gazteek ere, animatzen badira, ateratzen dute beraie-na. Herri osoan barna kalejira egingen dute. Ondoren, berendua izanen da.

Biharamonean, Eguberri egunean, eguerdian plazan olentzero talde bakoitzeko partaideek abestiren bat kantatzen dute eta onenari sariak ematen zaizkio eta, azkenik,

olentzero guztiak batera erre egiten dira.

Mendi mutilen besta

Aspaldiko urtetan bezala, Errege egunean, mendi mutilen besta ospatuko da Aterpe erretegiari. Bertsolarien izenak ezagutzen ez badira ere bertso bazkaria egingen da. Zoritxarrez, urtetik urtera lagun guttiago biltzen dira bazkarian

Antzerkia eskolan

Eskolako haurrak, abenduaren 17an urteroko antzerki saioak eskaini zituzten. Guztira bortz antzerki egin zituzten, kurtsoka banatuak.

Antzerkia bukatzerakoan Eguberrietako zareak zozketatu zituzten.

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESKA

ttipi-ttapa

6.200 harpidedun
21.000 irakurle

BURLADA JATETXEA

Urte Zaharreko afarietarako
Menuak Aukeran

Erreserbak egiteko deitu 634027 ☎ ra • ARANTZA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

KIROMASAIA

Iñaki Razquin

KIROL MASAIA

- Besoa - Belauna
- Ukalondoa - Zurmioa

GIHAR LASAITZEA

BIZI MASAIA

- Zerbikalak - Kaderak
- Lunbarrak - Ziatika eta sasi-ziatika

ERLAJAZIO MASAIA

Gihar kontrakzioak, lanean postura txarrean egoteagatik...

TERAPEUTA DIPLOMATUA
Kontsulta leku zentrikoan
(Urdanibia Plaza ondoan)

Larretxipi 17 Behea - IRUN Tel: 943-63 34 81

Ordutegia: Astelehenetik ortziralerara 16.00tik 20.00ra
Larunbatetan 10.00tik 14.00ra R.P.S.: 199/94

Sunbilla

Herriko hiru emakumek ehun urteak beteak dituzte

Arretxekobordako Pilar Garro, Txangobordako Juana Agesta eta Arrigazteluko Graciana Jorajuriak, hain zuzen

IXABEL ETA JOSUNE

Nahiz eta bakar bat ez den orain Sunbilla bizi, herrian jaiotako hiru emakume badira aurtun ehun urteak bete dituztenak.

Arretxeko bordako Pilar Garro Goñi, 1895ko apirilaren 29an jaio zen eta gaur egun Doneztebeko Etxegorrian bizi da. Martzelino Mindegiarekin ezkondu zen.

Juana Agesta Monasterio 1895ko urriaren 4an jaio zen Txango bordan eta Hendai bizi da. Florencio Larrearekin ezkondu zen.

Graciana Jorajuria Arretxea, 1895ko azaroaren 15ean jaio zen Arrigaztelun eta Irunen bizi da. Florencio Etxaguekin espostu zen.



Urte batzuk falta zaizkie hauek ehun urteurrenera ailegatzeko



Eguberri egunean eskean bildutakoarekin bazkari ederra egingen dute gazteek abenduaren 26an

ttipi-flash

♦ Sagardotegian afaria

Urtarrilaren 20an sagardotegira bidaia antolatu da, afaria egiteko asmoarekin. Joan nahi duenak Juanjori erran edo 450459 telefonora deitu hilbeltzaren 13a baino lehen.

♦ Erregetako Kabalgata

Badirudi aurtun Errege bezperan kabalgata egingen dela. Prestaketan dabilen jendeak gauza aunitz prest omen ditu, baina oraindik zaldiak falta direnez, ez da segurua kabalgata egin ahal izanen den.

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • **DONEZTEBE**

BELARRA

Ostatu Jatetxea

Amezti 3, Tf. 45 03 06 • **DONEZTEBE**

Urtezaharreko afariak ematen dira

ILEAPAINDEGIA

"ARTAZI"



Zure ilea, zure gustora apaindua

Eguberri zoriontsuak eta Urte Berri on opa dizuegu

Gindal Ibiltokia, 3 - 1.D

Tel. (948) 45 08 44

31791 SUNBILLA

MAITE
ileapaindegia

- SOLARIUM-A
- AZKEN MODELOAK ORRAXKERETAN
- EMAKUMEAK, GIZONAK ETA HAURRAK

Urte Berri On opa dizuegu

Udaletxearen ondoan, Merkataria k. 7, © 451780 • **DONEZTEBE**

Doneztebe

Donamariarako bide zaharrak itxia segitzen du

Udalak zenbait gestio egin baditu ere, bertan aparkatzen dituzte ibilgailuak guardiazibilek

TXEMA ALDABE

Lehen Donamaria aldetik erabili ohi zen bidea (oraingo karretera berriagoa baita) itxia dago aspalditik, guadiabilak kotxeak eta Nissanak herrirako sarreran aparkatzen dutelako. Herritarren kejak zirela eta udalak hainbat gestio egin izan ditu bide hori libre utz dezaten, baina oraindik ez du emaitza onik eman. Nafarroako delegatua den Cesar Milanorengana ere jo du Udalak.



Donamariarako aitzinako bidetik ezin da pasatu normalean

Argazkia: TXEMA

Eguberrietako ekitaldiak prest daude dagoeneko

Abenduaren 24an Olentzeroa aterako da arratsaldeko 4etan eskolatik eta San Miguel auzoan ibili ondoren, herriko karrika guzietatik pasako da, plaza zaharrean akituko delarik bere itzulia. Ondoren txokolatada izanen dute jubilatuen tabernan. Hilbeltzaren lean, berriz, haurrak

etxez etxe ibiliko dira eskean. Eta Eguberriekin akitzeko errege bezperan hain ospetsua den kabalgata ospatuko da. Arratsaldeko 6etan aterako da eta aurten jende heldua ere jantzea espero da. Goizez herriko postariak etxez etxe haurren kartak jasotzera pasatuko dira.

Kultur Zikloa antolatu du Malerrekan Langarra taldeak

Urtero bezala, Eguberrietan Langarra Malerrekan euskara taldeak ekitaldi ezberdinak prestatu ditu.

Abenduaren 27an, asteazkena, goizeko 11etan Legasan pottokek eta zaldiak izanen dira gazteendako. Setan Narbarten ipuin kontalariak. Abenduaren 28an, ortzeguna,

Zubietan, arratsaldeko 5etan Kasketa kabareta antzerki saioa izanen da. Abenduaren 29an, ortzirala, Ituren, arratsaldeko 5etan pelikula emanaldia eta ziklo honi akabila Donamarian emanen zaio, arratsaldeko 7,30etan izanen den ekitaldiarekin eta ondorengo afariarekin.

ttipi-flash

Haurrendako zinema

izanen da Doneztebeko zinean abenduaren 27, 28 eta 29an eta hilbeltzaren 3 eta 4an. Pelikula arratsaldeko 5etan izanen dira.

Nepaleko diapositibak

botako dituzte Esther Mugertza eta Amaia Elosegik Malerrekan Euskaltegian abenduaren 21ean, arratsaldeko 6,30etan. Ondoren afaria izanen da.

Kanposantuan

83 hilobi berri egiteko eskaera jaso dira, honen eskeintza egin zenetik. Orain proiektu ttiki bat eginen da kokapena aztertzeko eta gero lanean hasiko dira.

Ihizturiek

abendu hasieran arbolak landaketarako 800 zulo egin zituzten Askin eta Kaxerna inguruetan. Otsailean pinu eta haritz arbolak landatuko dituzte.

Etxe zainduak

edo babestuak hilbeltzan akituko dira.



TELLETXEA MOBLEAK

Gabonetan zer erregalatu ez dakizula?

Hemen izugarritzko aukera duzu osagarrietan:

- Alfonbrak, lanparak, kuadroak, ispiluak...
- Moble ttikietan: mahai ttikiak, arkak, kutxak, eskritorioak, aulkiak... **Ez utzi inor oparirik gabe!**

Rosa Seminario z/g • ☎ 45 02 58 • DONEZTEBE

Malerreka

Zubietako Tolatea erreka bideratzeko 2 milioiko laguntza

Aurrekontuaren % 75a ordainduko du Nafarroako Gobernuak

AINHOA MUTUBERRIA

Nafarroako Gobernuak 2.081.000 pezeta-ko dirulaguntza emanen dio Zubietako Udalari, Tolatea erreka herrigunetik pasatzen denean bideratzeko. Subentzioak, 2,7 milioi pezetatik goiti dabilen aurrekontu osoaren %75a estaltzen du. Lan hauen bitartez, herria estetiko-ki politagoa izateaz gain, kontrolatu gabeko zaborrak erreka ondoan ez uztea nahi da.

Momentu honetan, erreka sasi eta larrez bete dago eta sekzioa nahiko irregularra da. Kaja berria irekitzerakoan ormigoia botako da sekzioa berdintzeko eta kontaminazioaren kontrako geruza bezala. Zola ere ormi-goizatuko da, gehienez 20 metrotan. Ormak bertako kareharriekin eginen dira eta guttieneko zabalera 30



Ezkurra erreka isurtzen duen Tolatea bideratzeko lanekin, kontrolatu gabeko zaborrak erreka ondoan ez uztea nahi da

zm.koa izanen dute. Bideratze lanak egite-rakoan, erreka ahalik eta gehien hurbilduko da ezker aldera, eskuin aldeko karrikak zabaldu eta ibilgailuen apar-kamendua errazagoa izateko. Kaja berria irekitzerakoan ormigoia.

Eguberrietako ekitaldiak

Eguberriak gainean dauzkagu eta betibe-

zala eta denentzat bai-na batez ere, umetxo-entzat, egun berezi hauek ilusio eta poza erakusten dute.

Aurten ere, 24an Zubietako gazteek herrian zehar buelta emanen dute Eguberri bez-perako arratsaldea alai-tuz. Gero eta haur gu-txiago dago herrian, hortaz gero eta zaila-go izanen da abeslari

nahiko aurkeztea ikus-kizun honetara. Gero, Urtezahar eguneko antzerkia tokatzen da. Afaldu ondoren, mun-du guztia Bordaxora joanen da, muxu bate-kin zorionak eskain-tzeko lagunei, baina batez ere, ezezagunei. Lerro hauetatik, Egu-berri On eta urte berri on opa dizkizuet guz-tiei.

ttipi-flash

Narbarteko herri-lurren

egoera juridikoari buruzko ikerketa egiteko 2.300.000 pezetako gastua onartu du Nafarroako Gobernuak. Milioi erdi aurtengo aurrekontuetan sartuko litzateke, eta gainerakoa, dato-rreren urtekoan.

Oihan ateratzeak Ituren eta Berroaranen

Bidasoa-Berroaran izeneko Juntak 6.683 pinu aterako ditu 7,88 milioi pezetatan baloratuak. Iturengo udalak bertalde, 363 haritz eta bago atera-ko ditu 1,25 milioi pezetatan baloratuak. Lan hauetara-ko baimena eman berri du Nafarroako Gobernuak.



Elizagibela 4
☎ 450881
DONEZTEBE

- 1-16 taila bitarte
- %10-15-20ko deskuentoak denboraldiko arropatan

URTE BERRI ON!

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEn



MALDAERREKA, S.L.


24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

AMAIUR


ALTZARIAK



**Gabonak direla eta
etxea osatzeko opa-
ri zoragarri bat egi-
teko aukera ezin
hobea duzu.**



*Plantxak, kafeterak, eltzeak, bateriak, zartagiak, etab...
Denak FAGOREn kalitatearekin*



**Eguberri zoriont-
suak eta
Urte Berri On
opa dizuegu**



Doneztebeko sarreran • ☎ 45 04 00



Afalondoko giroa alaitzeko,
Gregorio Mitxelena izanen dugu
bere akordeoiarekin.
Hamabietan mahatsak, eta ondo-
tik... saski eder bat zozketatuko
da.

Goizaldera baratxuri zopak.

*Erreserbak egiteko
deitu lehenbailehen*

☎ 948- 63 41 79

ARANTZA

ETXANDI TXOKO erretegia

Urdaiazpikoa, Esparragoak, Langostinoak,
Almejak Saltsan

Salda

Legatz kokotxak saltsa berdean

Solomilloa guarnizioarekin

Era guzietako turroiak

Konpota

Txanpaina mahatsekin

Kafea, kopa, ardoa eta ogia

PERTSONAKO PREZIOA: 4.500 Pta.

Erreserbak egiteko deitu

☎ 948- 45 04 91 / ITUREN



**HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR**

*Sorpresaz
betetako
menua
dugu
urte zabarra despeditze-
ko*

*Deitu aitzinetik
lekua gordetzeko*

☎ 948- 63 52 90

ETXALAR



**HILARION
JATETXEA**

Ongietorri Koktela

Foie eta Esparrago Entsalada Epela

Vieira gratinatuak

Almeja eta langostinoak plantxan eginak

Itsas-zapo edo rapea labean egina

Solomilloa brasan egina

Etxeko Postreak

Urte bukaerako mahatsak

Cava eta Homenaje Ardoak

Kafea

Baratzuri zopa (goizaldean)

Sorpresaz betetako poltsa

PERTSONAKO PREZIOA:

7.000 Pta. (BEZ barne)

Erreserbak egiteko deitu

☎ 45 00 03 / ELGORRIAGA



Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-ttapa

Euskara Mankomunidadearen estatutuak negoziatuko dira, Lesakako Udalak eskatuta

Lesakako Udalak irailaren 29an egindako bilkuran Bortzirietako Euskara Mankomunidadeari estatutuak negoziatzen hasteko eskatzea erabaki zuen. Erabaki hau gehiengoak onartu bazuen ere, Severiano Txopereña, Eduardo Conde eta Carlos Santiago zinegotzien aurkako botoa eta Jose Ramon Maritxalarren abstentzioa izan zuen. Horrela, urriaren 26an Batzorde Erabakiorrak negoziazio horri hasiera ematea onetsi zuen. Lesakako Udalaren esku dago negoziatu nahi dituen puntuak edo atalak aurkezte.

◆ Arantza UEMAn sartu da

Azkeneko urte honetan zenbait bilera egin ondoren, Arantzako Udalak, irailaren 8an egindako bilkuran Udal-erri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzea erabaki zuen. Izan ere, Arantzako herriak Mankomunitate horretan sartzeko baldintzak betetzen baititu, hau da, herritarren %80a euskalduna da eta udalak euskaraz funtzionatzeko erabakia hartu zuen.

◆ Batzorde Erabakiorra

Azkeneko gehigarrian aipatzen genuenez, Berako Udalak Euskara Mankomu-



Haurrendako tailerrak egin dira Etxalar, Arantza, Igantzi eta Lesakako Kultur Ihardunaldietan

nidadarako bigarren ordezkaria hautatu gabe zeukan. Halere, irailan bertan aukeratu zuten bigarren ordezkari hau. Beraz, Herrialde taldeko Antton Lasarte Pellejero izanen da.

◆ Kale neurketa

Iaz bezala, aurten ere irailaren 19tik 26ra gure bortz herrietan hiru neska euskararen kale neurketa egiten aritu dira. Dakizuen bezala, neurketa honen bitartez Bortzirietako karriketan euskararen erabilera zernolako den jakinen dugu. Datuen azterketa egiten dugunean honen berri emanen dizuegu.

◆ 'Erosi Euskaraz'

Lesakako ferietan bertako Euskara Batzordea fuerte aritu da lanean. Goizean postu guzietan datu bilketa egin zuten, saltzaile guzietan beren euskararen eza gutza eta erabilerari buruzko galderak eginez. Era berean, saltzaile euskaldunei "EROSI EUSKARAZ" jartzen zuen karteltxoak eskeini zieten.

◆ Kultur ihardunaldiak

Azaroan zehar Etxalarren, Arantzako, Lesakan eta Igantzin kultur ihardunaldiak izan ditugu, bertako Euskara Batzordeek antolatuta. Herri guzietan haurren-

tzako tailerrak izan ditugu. Bertzalde, hitzaldiak eta diapositiba emanaldiak, bertso eta txiste saioak, ipuin kontalariak eta gisakoak ere izan ditugu.

◆ Bertso ikastaroak herriz herri

Dakizuen bezala, Bortzirietako Bertso Eskola Lesakan egon da orain arte. Horregatik, aurten Euskara Mankomunidadeak, Bertso Eskolarekin batera herri guzietan bertso ikastaroak prestatu ditu. Ikastaro hauek 3. mailatik 8. maila bitartean dauden ikasleek parte hartzen ahal dute. Ikastaroak laburrak izanen dira, bizpahiru hilabetekoak. Irakasle bezala, Bortzirietako Bertso Eskolako bertsolariak arituko dira. Izen eman dutenen zerrenda antolatu ondoren, Eguberriak pasata, hasiko dira ikastaroak.


◆ 'Bortziri' gaizki errana dago

Behin baino gehiagotan erran badugu ere, oraindik maiz ikusi eta aditzen dugu "Bortziri" forma. Halere, forma zuzena ez da "Bortziri", "Bortzirietako" baizik. Beraz, gu ez gara "Bortzirietako", "Bortzirietakoak" baizik; ez gara "Bortziri" bizi, "Bortzirietan" baizik...

Berriak

Isabel Akerreta: «Arantza UEMAn sartzeak ekarriko duen aldaketarik inportanteena Udaletxe barrenean gertatuko da»

Isabel Akerreta iruñearra Arantza eta Igantziko udaletako idazkaria da. Horretaz gain, ekainaz geroztik Bortzirietako Euskara Mankomunidadean ere idazkari lanak egiten ditu. Arantza UEMAn sartu dela eta, horren inguruko galderatxo batzuk egin dizkiogu.



Ze akordio hartu behar izan zuen Arantzako Udalak UEMAn sartzeko?

Akordio hori Arantzako herriak UEMAn sartu ahal izateko bete behar diren baldintzak betetzen zituela ikusirik hartu zela, hau da:

- Herritarren %80tik goiti euskalduna izatea: 1991ko erroldaren arabera arantzarren %99,3 euskalduna da.
- Udalak, euskaraz funtzionatzeko borondatea erakustea.

Beraz, hau horrela

izanik Arantzako Udalbatzak UEMAn estatutuak onartu zituen eta Xabier Zugarramurdi zinegotzia izendatu zuen ordezkari gisa. Horrela bada, gehiengo osoz UEMAn sartzeko erabakia hartu zuten.

UEMAn sartu izateak ze aldaketa ekarriko dizkio herriari?

Hemendik aitzinera Udaletxeko barne funtzionamendu guzia euskaraz izanen da. Beraz, inprimakiak, espedienteak... eus-

karatzen hasiak gara. Halere, barne funtzionamendu guzia euskaraz izan arte denbora puska bat pasatuko da. Alde batetik, gauza batzuek euskara hutsez egiten hasiak gara, errate baterako aktak, inprimakiak, posta, Nafarroako Gobernuari bidaltzen zaion dokumentazioa... Bertzetik, orain arte elebiez egiten zena hemendik aitzinera euskara hutsez egitea ez zaigu kostatuko, lana egin baitzegoen. Halere, lan handia

egin beharko dugu, izan ere orain arte barne funtzionamendua gaztelaniaz izan baita nagusiki.

Ikusten denez, UEMAn sartzeak ekarriko duen aldaketarik garrantzitsuenak Udaletxe barrenean gertatuko da. Herritarrei begira, eurekiko harremanak euskaraz izan da orain arte, bai ahoz eta gehienetan, bai idatziz ere, bandoak, deialdiak, oharrak... aspaldi euskara hutsez egiten baitziren. Beraz, herritarrek al-

daketa ttikia nabaritutuko dute.

Nafar Gobernuarekiko harremanak nolakoak izanen dira orain?

UEMAn sartu garenetik Nafar Gobernuari gure dokumentazio guzia euskara hutsez bidaltzen diogu. Handik datorrena gehienetan erdara hutsez dator nahiz eta zenbait departamentu elebiez bidaltzen hasiak diren (adibidez Toki Administrazioa). Beraz, Nafar Gobernutik erdara hutsez ailegatzeko den dokumentazioa itzuli egiten dugu, euskaraz bidaltzeko eskatuz. Izan ere, Nafar Gobernuak itzulpen zerbitzua baitu. Gai honekin orain arte ez da arazo handirik sortu. Gainera, gure eremuan euskara ofiziala denez, erraten ahal da legeak babesten gaituela.

Nafarroan UEMAn sartu diren herriek eskaera bat luzatu diote Nafar Gobernuari. Zer da eskatzen zaiona?

Hiru puntutan laburbiltzen da:

- Nafar Gobernuarekiko idatzizko harremanak euskaraz izan dadila.
- Nafar Gobernutik Udaletara bidaltzen dituzten langileak euskaldunak izatea.
- Errotulazioa, bide seinaleak eta gisakoak euskaraz eta ongi idatziz jar ditzatela.

Berriak

Aitzinera goazi

Gibelera goazi

Liburuak



Arantzan "Iruñeko Kutxak" daukan bulegoaren erro-
tuloa euskara hutsez paratu dute. Txalotzekoa iruditzen zaigu, orain arte ez baititugu inon ere iku-

si kutxen errotuloak euskara hutsez paratuak. Modu berean, Nafarroako Aurrezki Kutxak ere, erdara hutsez zituen errotuloak bi hizkuntzetan paratu ditu.



Lesakako Udaleko bilkurak euskaraz egiten badira ere, aktak erdara hutsez egiten dira. Zinegotzi batzuek aktak euskaraz hartu ahal izatea eskatu

dute. Halere, ukatu egin zitzaizen euskara hutsez eginez gero, herritar batzuek ez luketelako ulertuko eta elebiez egiteko, berriz, udalak bitartekorik ez duelakoz.

Herriko Plaza

UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) izenak dioen bezala euskaraz funtzionatzen duten udalerrien bilgunea da. Bertan Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 22 herri biltzen dira. Nafarroan Arantzarekin batera Leitza, Goizueta, Urdiain eta Zubietan UEMAn sartuta daude.

Mankomunitate honetan sartu nahi duten herriek bi baldintza bete behar dituzte:

- Herritarren %80tik goiti euskalduna izatea.

- Udalak euskaraz bizi eta funtzionatzeko helburua bereganatzea.

Arantza UEMAn sartzeko prozesua iaz hasi zen. Izan ere, Bortzirietako Herri Batasunak eskutitz bat bidali baitzion

Patri ARBURUA
Bortzirietako Euskara Teknikaria

«Arantza bezala, Igantzi eta Etxalar ere UEMAn sartzen ahal dira»

Euskara Mankomunitateari. Bertan Arantza, Etxalar eta Igantzi UEMAn sartzeko baldintzak betetzen zituztela azaltzen zuen eta aldi berean, UEMArekin harremanean jartzea proposatzen zuen. Halere, hiru herri horien ezaugarriak ikusirik, oraingoz egokiago ikusi da Arantza sartzea eta Igantzi eta Etxalar, momentuz alde batera uztea. Horren ondoren, Arantzako alkate-zinegotziak, udal langi-

leak eta Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakiorra UEMAn sartzeko ordezkariekin bildu ziren, mankomunitate horren berri izateko. Hauteskunde ondoren bertze bilera bat egin zen udalbatza berriarekin. Horrela, irailaren 8ko bilkuran, gehiengo osoz onartu zuten UEMAn sartzea.

UEMAN sartzeak dakarren aldaketarik garrantzitsuena Udal-letxe barreneko funtzionamenduari dagokio. Izan ere, orain

arte udal funtzionamendua gehienbat erdaraz izan bada, hemendik aitzinera euskaraz funtzionatuko baitu Arantzako Udalak. Bertzalde, Udalak herri mailan eragin beharko du udalerrriaren funtzionamendua euskaraz izan dadin lortzeko.


Goian erran dugun bezala, oraingoz Arantza izan da UEMAn sartu den herria. Halere, Igantzi eta Etxalarrek ere baldintza horiek betetzen dituzte. Beraz, espero dezagun hurrengo urteotan Arantzako udalaren erabakiak eta esperientziak bertze herrientzat balio izatea. Kontuan hartu igantziarren %95a eta etxalararren %90,4a euskaldunak direla eta beraz, biak euskaraz funtzionatzeko gai direla.



«Badena dena da»

Patxi Zabaleta
Txalaparta, 402 orr.

1936ko gudua lehertzen den unean bertan hasten da *Badena dena da* Patxi Zabaleta leitzararren azken eleberria eta *Ukorekarekin* hasitako trilogiaren bigarren emaila. Jainkoa, Erlijioa eta Aberria aipatuko dituzte baina auzokoak auzokoa salatuko du; senideak senidea eta ankerkeriaren gogorrena txiroek jasan beharko dute.



«Hamaika pauso»

Ramon Saizarbitoria
Erein, 446 orr.

Hamalau urtez lan mar-dulik plazaratu gabe egon ondoren, eleberrri berri batekin datorkigu Ramon Saizarbitoria, *Ehun metro* bezalako klasikoaren egilea. «Ukatu egiten du eskaintzen zaion benda beltza, buruaren zirkun apal batez, eta begirada bere adorearentzat nahi lukeen lekukoaren bila galtzen zaio, alferrik. Aurrean, fusilek osatzen duten lerroa hertsu egin da, hiltzaile bakoitzak besteen artean ezkutatuta nahi balu bezala».

HIRU

Berriak



JESSE-87

Nola izendatzen dira barazkiak Bortzirietan?

Euskalerrian zehar, gauza bera izen ez-berdinez ezagutzen da, euskalki bakoitzaren arabera. Eskualde batetik bertzera ere zenbait hitz aldatzen dira. Gure eskualdean, Bortzirietan, herritik herrira zenbait aldaketa izaten dira.

Baratzak ematen dizkigun produktuekin hori gertatzen da. Batzuk izen berexia dute eskualde honetan, bertze batzuk bertze euskalkietan bezala izendatzen dira eta bertze batzuk, inguru honetan ezezagunak direlako edo euskarazko izena galdu delako, erdarazko izen berarekin erabiltzen ditugu.

Igantzi-Arantzan

- 1.- Ilarrak
- 2.- Babak
- 3.- Ilarbilak
- 4.- Leka
- 5.- Kalauza
- 6.- (Rábano)
- 7.- Arbia
- 8.- Erremolatxa
- 9.- Azanahoria
- 10.- Aza
- 11.- Pepinoa - Pinoa (?)
- 12.- Alkatxofa
- 13.- Esparragoa
- 14.- Letxuga
- 15.- Peila
- 16.- Azelga
- 17.- Porrúa
- 18.- Espinaka
- 19.- Piperra
- 20.- Pipermina
- 21.- Patata
- 22.- Tomatea
- 23.- Tipula
- 24.- Baratzuria
- 25.- Perrexila
- 26.- Onddoa
- 27.- Perretxikoa

Beran

- 1.- Ilarrak
- 2.- Babak
- 3.- Ilarbilak
- 4.- Leka
- 5.- Kalauza
- 6.- (Rábano)
- 7.- Arbiya
- 8.- Erremolatxa
- 9.- Baztanarria
- 10.- Aza
- 11.- Pepinoa
- 12.- Alkatxofa
- 13.- Esparragoa
- 14.- Letxuga
- 15.- Peila
- 16.- Azelga
- 17.- Porrúa
- 18.- Espinaka
- 19.- Piperra
- 20.- Pipermina
- 21.- Patata
- 22.- Tomatea
- 23.- Tipula
- 24.- Baratzuria
- 25.- Perrexila
- 26.- Onddoa
- 27.- Perretxikoa

Ettxalarren

- 1.- Ilarra
- 2.- Babak
- 3.- Maiatz-ilarra
- 4.- Leka
- 5.- Kalauza
- 6.- (Rábano)
- 7.- Arbiya
- 8.- Beterraba
- 9.- Azenarioa
- 10.- Aza
- 11.- Pepinoa
- 12.- Alkatxofa
- 13.- Esparragoa
- 14.- Letxuga
- 15.- Peila
- 16.- Azelga
- 17.- Porrúa
- 18.- Espinaka
- 19.- Piperra
- 20.- Pipermina
- 21.- Patata
- 22.- Tomatea
- 23.- Tipula
- 24.- Baratzuria
- 25.- Perrexila
- 26.- Onddoa
- 27.- Perretxikoa

Lesakan

- 1.- Ilarra
- 2.- Babak
- 3.- Ilarbila (ilar berdía)
- 4.- Leka
- 5.- Kalauza
- 6.- (Rábano)
- 7.- Arbia
- 8.- Erremolatxa
- 9.- Azenarioa
- 10.- Aza
- 11.- Pepinoa
- 12.- Alkatxofa
- 13.- Esparragoa
- 14.- Letxuga
- 15.- Peila
- 16.- Azelga
- 17.- Porrúa
- 18.- Espinaka
- 19.- Piperra
- 20.- Pipermina
- 21.- Patata
- 22.- Tomatea
- 23.- Tipula
- 24.- Baratzuria
- 25.- Perrexila
- 26.- Onddoa
- 27.- Perretxikoa

AHOLKURIK BEHAR IZANEZ GERO, DEITU

Etxe berriari izena nola idatzi, hiliarrietako plakatxo bat nola moldatu edo komertzio, jatetxe edo ostatu berriaren izena euskaraz nola idatzi ez badakizu, deitu

**634125**



MENU BEREZIAK

Urte Zahar gauera-
ko

Menuak kontsultatzeko
eta Erreserbak egiteko
deitu:

© 948- 63 09 67 / BERA



AMEZTIA JATETXEA

Ahate Patea onddoekin

Urdaiazpiko Iberikoa

Marisko Pudina

Salda Jerez erara

Izokina itsasoko fruituekin

Solomilloa guarnizioarekin

Turroi desberdinak

Ardoak, Codornia Txanpaina, Kafea eta Kopak

Mahatsak eta Kotiloi boltsa

PERTSONAKO PREZIOA: 4.500 Pta.
Erreserbak egiteko deitu 29a baino lehen

© 948- 45 00 28

DONEZTEBE

**Logela bikoitzak
kalefakzioa
eta TBrekin**



BEREAU

jatetxea • Hotela

Entremes hotz eta beroak

Langostinoak plantxan

Legatz-betea

Solomilloa guarnizioarekin

Turroiak, mahatsak...

Edariak

BIKOTEKO PREZIOA: 9.000 Pta.

OFERTA: Afaria + bertan lo egi-
tea: 14.000 Pta eta Urte Berri
eguneko bazkaria dohain

Erreserbak egiteko deitu

© 948- 63 73 82

Lesakako zubia • LESAKA

Hotel Mugaire

Urdaiazpiko eta txerriki Iberikoak

Krabarroka Pudina Saltsa arrosarekin

Txangurroa Donostiar eran

Pikillo piperrak zerri patekin bere saltsan beteak

Marisko Crema

Itsaszipo edo Rape xerrak Koxkera erara,
ganba eta almejekin

Solomillo Broch erara

Milhojas izozki kremarekin eta turroiak

Kotiloi boltsa eta mahatsak

Ardoak: Agos ardoa, Sardasol gorria, Codorniu
Cava, kafea, likoreak eta zigarroak


Goizaldera arte dantzaldia GELATXOrekin

Erreserbak egiteko deitu (Plaza limitatuak)

© 59 20 50 / Hotel Mugaire

URTE ZAHARREKO AFARIAK





ASUN VIELA
ILEAPAINDEGIA
ZORIONAK

Pedro M^o Hualde z/g - Tel. 58 06 18 - IRURITA



San Miguel Tailerra

GABONETAKO OFERTA! **Mendi bizikletak**

- Haurrenak: 10.000 pezetatik aitzinera
- Koxkorrak: 15.000 pezetatik
- Helduenak: 21.500 pezetatik
- Aluminiozkoak: 45.000 pezetatik



Edozein bizikleta erosteagatik opari bat

Rosa Seminario, 4 • 450163 • DONEZTEBE


ZORIONAK **ETA URTE** **BERRI ON**

Amaya

Amezti • 450163 • DONEZTEBE

- Era guztietako opariak gizon-emakumeentzat
 - Markako perfume eta kremetan ofertak
- BERRIA!** Makilai Iraunkorra:
(Ezpain perfila, begietako marra, bekainak...)

Zure zerbitzura gaituzu!



DENDA BERRIA IRUNEN!

- Beira urdina
- Altzari zaharrak
- Gabonetako opariak

Prezio izugarri egokiak

Nafarroako Hiribidea 13
Tfnoa: 943 - 62 53 82 • IRUN



Jai zoriontsuak
igaro ditzazuela

MARIXUS elektrogailuak

Eneterreaga anai-arrebak

- Iturgintza instalazioak
- Elektrizitatea
- Antenak
- Sukalde eta bainu mobleak

GABONETARAKO!

Ofertak elektrogailuetan:
txikiak nahiz handiak

Zorionak
eta Urte
Berri On!

Zarandia 3, © 637070 • LESAKA

Malerreka

Iturengo Kultur Egunetan partizipazio haundia izan zen

Ekitaldiak antolatu zituen Ibintza kultur taldeak, jendearen partehartzea azpimarratu du

IBAN ISASI

Kultur Egunak ospatu ziren abenduaren 7, 8 eta 9an, Ibintza kultur taldeak antolatuta. Talde honek, zerbait aipatzekotan "partizipazio haundia" izan dela azpimarratu du. Egitaraua Itoizko urtegiari buruzko solasaldi batekin hasi zen. Biharamonean, herriko trikitilarien kalejiraren ondotik, Andres Iñigok toponimia, etxe-izen eta gainera koei buruzko hitzaldian hainbat izenen erranahia azaldu zuen. Iturenak bortz auzo zituela, Palazioaren istoriaren zati bat ezagutu eta biztanleriaren gorabeherak XV. mendetik honat azaldu zituen Arratsaldean, pilota partiduek eta mus txapelketak. Pilota txapelketaren finala Javier eta Joaquinek irabazi zuten. Gauean, S.F.O., Eragaitz eta Leitzako talde batek parte hartu zuten kontzertu batetan.



Pallazioaren istoriaren zati bat ezagutzeko aukera izan zen, bertzeak bertze, Andres Iñigok emandako hitzaldian

Larunbat goizean, Bertizetik ekarritako zaldiak, arratsaldean umeendako jolas eta pelikulak eta Gontzal Mendibilen kontzertua izan zen. Arratseko afarian 35 bat lagunek parte hartu zuten eta Kultur Egunei bukaera emateko *Etzakit* trikitilariak aritu ziren, tartean, *Skunk* Iparaldeko taldeak kontzertua eman zuen.

Honela joan dira aurtengoak, baina dagoeneko datorren urterako proiektuak martxan daude. Lanean arituz gortie zorianak eta aitzinera.

tzertua eman zuen. Honela joan dira aurtengoak, baina dagoeneko datorren urterako proiektuak martxan daude. Lanean arituz gortie zorianak eta aitzinera.

Sorginak inguruan

'Sorginkeria eta honek izan zuen eragina inguru honetan' gaiari buruzko bileraren eginen da Donezteben, Malerrekako Euskaltegian, abenduaren 27an, arratsaldeko 6,30etan.

Baztan, Malerreka eta Bortzirietako jendea zabalik dago bilerara haur, beraz, gaian interesa duten guztiak azaltzea espero da.

elkarriketak guztion laguntza behar du

Gero eta gehiago dira Euskal Herrian bakea lortzeko biderik egokiena elkarriketa eta akordioa direla uste dutenak.

3.000 bazkide baino gehiago dituelarik **elkarri** gizarte mugimendua lanean ari da egunero asmo hori egia bihurtzeko.

baina ez da nahikoa

Elkarriketak guztion laguntza behar du.

Zuk ere laguntzeko aukera duzu.

elkarri

Moztu kupoi hau eta helbide honetara bidal ezazu:

elkarri, Poeta Lizardi enparantza 2, tarteplanta. 20400 Tolosa

- ☐ Bai, **elkarri**ren laguntzailea izan nahi dut.
Hileroko kuota (14 kuota urtean):
☐ 1.300 pzta ☐ 2.000 pzta ☐ 5.000 pzta ☐ 10.000 pzta
Aportazio bakarra:
☐ 10.000 pzta ☐ 25.000 pzta ☐ 50.000 pzta ☐ 100.000 pzta
(Laguntzaile guztiek **elkarri** eta **elkarrikasi** aldizkariak dohainik jasoko dituzte)
 - ☐ Bai, **elkarri** (hilabetekaria) eta **elkarrikasi** (trimestrala) aldizkariak etxean jaso nahi ditut.
Ordaintzeko era:
☐ 4.000 pzta (urtean behin) ☐ 1.000 pzta (3 hilabete behin)
 - ☐ Bai, **elkarri** gizarte mugimenduari buruzko informazioa jaso nahi dut (kasu honetan ez itzazu bete bankuari buruzko datuak)
- Izena..... Abizenak.....
Helbidea..... Herria.....
Herrialdea..... Posta kodea.....
Telefona.....
Banku edo aurrezki kutxa.....
Sukurtsal helbidea.....
Sukurtsal zkia..... Kontu zenbakia.....

Goizueta

Umore Onak Cluben arteko pilota txapelketaren ohorezko mailan jokatu du datorren urtean

ESTEBAN AROZENA

Cluben arteko pilota txapelketan jokatzeko hasi zenetik lau denboraldi igaro direnean bete du gure herriko Umore Onak hasieratik zuen helburua: Ohorezko dibisiora igotzea. Hirugarren mailan urte bat egin zuen, bigarrenen bi eta lehenengoan bat, aurtengoa.

Hilaren 9 eta 10ean jokatu zuten azken fasea Umore Onakoek Guadalajarako Trillo herrian eta bertan eskuratutako bigarren postuak eman zien goizuetarrei Urrezko mailarako txartela. Juantxo Apezetxea, Joxeanton Apezetxea, Iban Aro-



1991ko Nafarroako Herriarte txapelketa irabazi zutenean bezala beste poztasun egun bat eman dute Goizuetako pilotariek, Cluben arteko txapelketako ohorezko maila eskuratuz

Artxiboa

zena, Jon Goizueta, Xabier Berroeta eta Angel Salaberria izan dira aurtengo denboraldian Umore Onare-

kin jokatu duten pilotariak.

Pilotaz ari garenez, ezin dira aipatu gabe utzi Olaizola anaiek az-

ken aste hauetan lortutako garaipenak. Asierrek, DV-ETBren txapelketan egindako bi partidua ederrez gain

Zumarragako buruz buruko torneo eskuratu du. Aimar berriz, Egian garaile suertatu zen, eta Tafallan finala galdu zuen Errandonea arantzarraren kontra

Boluntario taldea

Babespen zibileko boluntario talde bat osatzeko kanpaina hasi dute Goizueta eta Aranoko lagunek, 1992an egin zenarekin lotuz. Beraz, orduan izena eman zutenak boluntario bezala segitzen dutela suposatuko omen da, aurkakorik adierazten ez duten bitartean behintzat. Gainerakoentzat epea zabalik egongo da urtearen bukaera arte.

Areso

Ingurunea zaintzeko proiektua burutzen ari da eskola

Neguko Festa eta Euskararen Eguna arrakastaz ospatu zen

JUANA M^a SAIZAR

Herriko eskolak ingurune proiektu bat aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuan eta onartu zen beste 28 herrietakoekin batera. Hiru zati izanen ditu proiektuak. Lehen ospatu da dagoeneko, autobusa etorri baitzen inguruari buruzko diapositibak emanez. Inguruak eskaintzen diguna ikusi eta baloratzeko saiakera zen.



Bigarrena, mendizainaren laguntzarekin

oihanberritzea izango da. Hirugarrena, za-

borren gaineko kontzientzia sortu eta bir-

Abenduaren 8an ospatu zen Neguko Festa eta Euskararen Eguna. Goizeko ekitaldien ondoren, 40 lagun bildu ziren bazkarian. Gero trikitixa txapelketa egin zen

ziklatzeko moduak ikastea.

Udalarekiko zorrak ordaintzeko modua aldatuko da

Udalarekiko zorren ordaintzea modua aldatu egingo da urte berriarekin batera. Depositaria desagertu egingo da eta aurrez aurre, udalaren kontu korrontean egin beharko dira ordainketak.

Leitza

Lapurreta egin dute Herriko Etxean


Lehenengo solairuko leiho batetik sartu eta hainbat bulegotan ibili ziren

JOSEBA AZPIROZ

Azaroaren 27tik 28ko gauan, lapurreta izan zen udaletxean. Lapurrek lehen-dabiziko solairuko leiho batetik sartu ziren. Sarrailek bortxatuz Biltegia, Nekazal Ganbara, Posta bulegoa, Euskera Zerbitzua eta idazkaritzan sartu ziren. Nekazal Ganbaran paperak lurrera bota eta nahastu zituzten, Korreosen paketeak ireki eta posta-zigiluak eta bi giro lapurtu zituzten eta Idazkaritzatik berriz, 140.000 pezeta, mahaietako kajoi guzietako paperak lurrera bota ondoren. Hala ere, ez zuten makinarik lapurtu, ezta apurtu ere.

Zinea martxan

Zinea martxan da berriz ere, lan horretan borrontatez aritzen diren gazte batzuren eskutik. Bertako taberna irekitzeko ez da orain arte inor aurkeztu. Dakizuenetz, zineko garbiketa egitearen truke ematen da tabernaren erabilera. Gogoratu ordutegia: ostiralean 10etan eta igandetan 4,30etan eta 7etan.



Udalak auzolanerako deia egin du surtidore ondoan jartzen den jaiotza prestatzeko. Urteik urtera jende gutxiago azaltzen zen lanera eta azken urteotan pertsona berdinak izan dira lan honetan aritu direnak. Hortaz, abenduaren 22 eta 23rako luzatu da deia

Artxihoa

Felez fiskala kargutik kentzea eskatu du Udalak

Bere txostenean emakumezkoen duintasunaren eta eskubideen kontrako esanak agertzen zirela eta, Felez Nafarroako fiskala bere kargutik kentzea eskatu du udalak

HB taldeak proposatuta eta EAKo eta UILko Beatriz Zabaleta zinegotziaren aldeko botoekin. Talde bereko Silvestre Zubitur

zinegotzia abstenitu egin zen.

Eraberean txostena aldatzea eta santziorako espedienteak ireki dakion eskatu du udal batzarreak.

Senideak erakundearen aldeko mozioa onartu du Udalak, HB eta EAren botoekin

Euskal preso politikoaren egoera salatzen duen Senideak erakundearen mozioa onartu zen azken udal batzarrean, HB eta EAren aldeko botoekin. Bertan, preso zein

senitartekoen oinarriko eskubideekiko errespetu osoa eskatzen zen. Presoak Euskal Herrian biltzera eta baldintzapeko askatasuna ematea ere eskatzen zuen Seni-

deak-en idatziak. EAK beste puntu bat gaineratu zuen, "gizaki guztien giza eskubideak errespetatzea eta el-karrizketarako bideak lehenbaitlehen irekitzea" eskatuz.

ttipi-flash

Bederen 1

antzerki taldeak 'Zu(t) gabe' lana antzestuko du zinemaren larunbatean, hilaren 23an, arratsaldeko 8etan. Pilar Rodriguez (Leitzakoa) eta Felipe Barandiaran (Goenkalekoa) dira taldeko partaideak. Euskera Zerbitzuak eta Kultur Taldeak antolatu du saioa.

Plazaola

Plazaolako tren zaharrak zuen ibilbidearen berreskurapena lehenbailehen burutzea erabaki du Nafarroako Gobernuak, eta horretarako, ibilbide osoko lur eta eskubideen desjaketze prozesua hasiko dute. Plan honen helburua da ibilbide hau turismo indartzeko erabiltzea.

Bideoak Torrean

Abenduaren 26, 27, 28 eta 29an bideo emanaldiak izanen dira Torrean. Asteartean ETaren historia, asteazkenean Amnistiaren Aldeko Gestorak eskeinitakoa, ostegunean pilotalekuko martxo kontzertua eta ostiralean Negu Gorriak taldearen bideoa.



Esker Onak • Urtemugak • Eskelak

Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapa**k eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:

63 11 88

Baztan

Ana Mari Marin izanen da urtebetez Elizondoko alkatesa

Jon Frantzesenak bere dimisioa aurkeztu ondoren margolari elizondotarrak hartuko du kargua Errege egunean

JOSEBA IGARABIDE

Ana Mari Marin, 62 urteko margolari elizondotarra izanen da Elizondoko alkate berria Errege egunetik aitzinera. Ana Mari, abenduaren 10eko batzarrean aurkeztu zen, Jon Frantzesena alkate ohiak bere dimisioa aurkeztu ondoren egiten zen bigarren, hain zuzen. Lehen itzulian ez zen inor agertu eta bertze inor prest ez zegoela ikusirik Ana Mari Marinek alkate izateko borondatea erakutsi zuen bigarren itzulian, bere ustez Elizondoko alkate gabe ikustea lotsagarria delakoz. Lehendik ere, zortzi urtez Baztango zinegotzia izana da baita bi urtez Elizondoko alkatesa ere.

Marinek erran zueenez, "herrian parte hartzeko ilusionatu egin behar da jendea eta batzarreaz aprobetxatu behar da, tresnarik demokratikoena baita. Baztandarrok altxor hau aprobetxatu behar dugu".

Museo etnografiko bat egiteko asmoa azaldu zuen, herria zain- tzearekin batera.



Ana Mari Marinek, Jon Frantzesenak utzi berria duen Elizondoko alkate kargua hartuko du Errege egunetik aitzinera

Ondikol

Onddoen kofradiaren ekitaldiak burutu ziren

Nafarroako Onddo eta perretxikoen Kofradiak bere ekitaldiak burutu zituen abenduaren 6an. Ospakizunen artean garrantzitsuenak, Doneztebe, Sunbilla eta Elgorriaga arteko 'onddo ibilbidea' inauguratzea izan zen. Onddoen haziak zituzten plantak ere landatu zituzten bide berean. Azkenik, Salvador Arotzarena ohorezko kofradea zena gogoratuz meza ospatu zuten.

Azpiroz eta Saralegi enpresa ari da saneamendu lanak egiten

Leitzako Azpiroz eta Saralegi enpresa egiten ari da orain Elbete, Elizondo, Iru- rita, Lekaroz, Aintza- no, Ariztegi, Gartzain eta Elizondoko Mendi- nueta karrikako sane-

amendu lanak. Hasiera batean, Levelling-1 en- presari adjudikatu zi- tzaizkion lanak, baina honek ez du bere hitza bete. Leitzako enpre- saka 63.399.952 pza- tan egingen ditu lanak.

1a 8 milioi jasoko ditu Udalak mendian hobetze lanak egiteko

Balleko Etxeak mendietan zenbait lan egiteko 7.929.731 pe- zetako dirulaguntza ja- so du Nafarroako Go- bernutik. Berekoetxea zubirako 1.756.008 pe- zeta eta Iñarbegiko errekan, Agerrea ba-

serri aldera dagoen zu- bia moldatzeko 1.695.456 pezeta ja- soko ditu Udalak, au- rrekontuen %90a. Herri lurren azpiegitu- ra hobetzeko, berriz, 4.478.267 pezeta jaso- ko ditu, %70a.

ttiipi-flash

Lekarozko institutuan

UPNko Juan Manu- el Pedrosa izanen da udal ordezkaria.

SOS Arrazakeria

erakundeak, 5 urte baino gehiagoz es- tatuan bizi diren in- migratzaileek botoa emateko es- kubidea izan deza- ten egindako eska- ria onartu zuen Balleko Etxeak.

Arizkungo saneamendu

lanak 93-95 Hirur- teko Plangintzan sartu dira. Aurre- kontua 12.288.537 ptakoa da eta su- bentzioa, berriz, 5.812.666 ptakoa. Gainerakoa or- daintzeko kreditua eskatuko da.

Arraiozko TB errepetidorera

joateko bidea Le- karozko Goiene- txe eraikuntza en- presak egingen du 13.030.664 ptatan.

Gazte Asanblada

sortu da Baztanen. Gazteek dituzten arazoak aurre egi- tea izanen litzate- ke bere helburua.



JATETXEA
© 580297
Pedro Axular
ELIZONDO

Santxotena



Pierresenea
OSTATU - JATETXEA

Urte zaharreko afariak emanen dira

Iturriotz Auzoa • © 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

ARLA
ARDOTEGIA

Ardoak • likorrak •
freskagarriak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO

Arkupeak elkartearen besta Elizondon eta Donezteben

Joan den astelehenean ospatu zen. Meza nagusia Elizondon eta bazkaria Bordatxon

JOSEBA IGARABIDE

Arkupeak eskualdeko jubilatuek eta pensionisten elkarteak urtero antolatzen duen besta Elizondo eta Doneztebe artean ospatu da aurren. Meza eta ospakizun nagusia Elizondon egin zen bitartean, bazkaria Bordatxon, leku gehiago dagoelako. Ederki pasatu zuten adintuek.

Jostailuei buruzko hitzaldia

Lekarozko institutuan 'Erabaki zure jostailuak' lelopean Nafarroako Emakume Institutuko ordezkariak hitzaldia eskaini zuen. Emakume hau, jostailuak haur eta gazteen formakuntzan duten eraginaz aritu zen.



Haurren jostailuak erosterakoan kontuan hartu beharreko aholkuak jakinarazi ziren Lekarozko hitzaldian

Publizitatearen eraginez hainbat produktu erosten ditugun garai honetan, kontuan hartzeko moduko aholkuak eman zituen.

Kalteak Frantziskotarrei

Frantziskotarrek, beraien seminarioan abenduaren 3an egingako kalteak salatu dituzte epaitegian. De-

nuntziaren arabera, 200.000 pezetako gastuak sortu dituzte, 15 kristal xehetuz, extintoreak hustuz...

ttipi-flash

- ❖ **Iruritako** parrokiako ondoko zentroa egokitzeko lanak egiten ari dira asteotan.
- ❖ **HIES edo SIDA** gaixotasunaren aurkako eguna zela eta, informazio kanpaina antolatu zen Iruritan.
- ❖ **Huelga eguna** burutu zuten Lekarozko institutuan, Frantziako Gobernuak egindako azken extradizioen kontra.
- ❖ **San Andres Eguna** ospatu zuten Ziga eta Azpilkuetan.
- ❖ **Margo erakusketa** Urtarrilaren 8ra arte Silvia Etxandi margolariaren lanak ikusgai izanen dira Arizkunenea Kultur Etxean.
- ❖ **Ehizi elkarteak** bere batzar orokorra burutu zuen abenduaren 16an



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

SASKAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de



Era guzietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

DANBORIENA
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

☎ 453403 - ARIZKUN



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

KALE NAGUSIA 4 - TEL ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE

SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

RETEGI GOXOTEGIA

- ✓ Gabonetarako polboroiak, mazapanak, gilatxak, turroi ezberdinak, gereziak likorrakin, Olentzero gaitainak...
- ✓ Opari goxoak
- ✓ Enpresetako langileei edo bezeroei emateko aginaldoak
- ✓ Erregetako roscoa
- ✓ Etxeko tartak eta pastelak
- ✓ Txokolatea urrakin

Zorionak eta Urte berri on!

Santiago 43 • ☎ 452186 • ELIZONDO

Sara

'Telethon' myopathiaren garaitzeko urratsak Saran ere

150 bat haur eta helduk parte hartu zuten oinezko eta txirrindulariendako ibilaldietan eta pilota partidetan

MIXEL ETA JACQUELINE

'Telethon' myopathiari lotuak diren ikerlanen sustengatze ekintza abendoaren 9an iragan zen. Kanpaina hunek bi egun iraun du frantses lurraldean eta Saran, Turismo bulegoa zela bultzatzaile abendoaren 9a hautatua izan zen. 150 bat haur eta helduk parte hartu zuten oinezko edo txirrindulazko ibilaldietan, pilota partidetan. Joan den urtean baino arrakasta gutxiago izan duela dirudi. Aurtengo dirulaguntza 10.000 liberetarako heldu da eta iaz mozkinak 17.000 liberetakoak izan ziren.

Eskerrak hurbildik hunkituak direnen partez.



Santa Katalina kaperan, harrizko aldarean zizelkatua ageri da argazkian ikusten den esaldia

Pariserat presoan sustengatzera

Eguberri egun goxo hauen atarian, aurtentzen ere euskal presoak sustengatzeko garaia

gain gainean dugu. Pariserateko bidaia abendoaren 22an abiatuko da Baionatik eta

itzultzea 24ean izanen da. Txartelak ohizko lekuetan salgai izanen dira.

India Beltzak antzerkia

India Beltzak obra hau Axularren omezez antolatutako kultur hilabetea kari antzeztu zuen Xirristi Mirristi taldeak Omordian abendoaren 10ean, 150 bat ikusleen aurrean.

Antzerki hau Pantzo Hirigaraiek idatzi du eta gure goresmenak ongi merxituak ditu.

Ekitaldi hunek arratsalde goxo baten gozatzeko parada eskaini dauku. Ez al zen hau antolatzailleen xedeetarik bat? Naski baietz.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tíñoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

Iris Floristeria

• Oparitzeko landare saskiak

• Etxe barnerako nahiz jardinerako landareak

Eguberri zoriontsuak eta Urte Berri On opa dizkizuegu



Jaime Urrutia 21 • © 581053 • ELIZONDO

Urdazubi

Argineneako Asuncion eta Ferminek 50 urte bete dituzte esposaturik

Bertzalde, urteroko Eguberrietako besta antolatu dute eskolako haurrek abenduaren 22rako

ALIZIA OLAIZOLA

Landibar auzoko Argineneako Fermin Olaizola eta Auncion Olhagaraik Urrezko ezteiak bete dituzte azaroaren 28an. Zorionak bieri 50 urte hauengatik.

Eguberriak

Abenduaren 22an eskolako haurrek urtero bezala besta bat antolatu dute, olentzeroa eginez, gabon kantak, dantzaldia eta akribitate gehiago izanez. Eguberrietako saskia eta opari desberdinak zozketatuko dituzte.

Jantzigintza ikastaroak, bertzalde, Santa



Landibar auzoko Argineneako Fermin eta Asuncionek azaroaren 28an Urrezko Ezteiak ospatu zituzten

Luzia eguna ospatzeko meza eta ondotik afaria egin zuten. Santa Luzia josleen eguna izaten da.

Urteko errepassoa

Ezkontzak: Fermin Etxart Maia (irailak 16). Jaiotzak: Jon Irigoien Mendburu eta Jon Ander Bengoetxea Azkarraga (uztailak 10). Heriotzak: Julia Malda Irigoien (urtarrilak 25), Eulalia Agirre Endara (martxoak 16), M^a Cruz Elorga Gurrutxaga (azaroak 5) eta Ceferino Blanco Hidalgo (abenduak 1).

Zugarramurdi

Kultur hilabeteko ekitaldiak arrakastaz ospatu dira

Frontoi berria lehen aldiz dantzaldi baterako erabili zen

MARGARI ETA KORO

Arrakasta handia izan du lehenbiziko aldiz Sara, Azkaine eta Zugarramurdi artean antolatutako kultur hilabetea. Herrian egin diren hiru ekitaldiak jende franko bildu zuten. Lezean Koldo Ameztoui eta Napartheiden inguruan egin zenean, ustez baino jende gehiago hurbildu zen.

Ondoko astean frontoi berrian 7 Eskale, Xitoak eta 5 geio taldearekin gau-



& Eskalek parte hartu zuen frontoi berrian egindako lehen dantzaldian

pasa egin zen giro polit batean. Gainera, hau izan da frontoi honetan egiten den lehen dantzaldia eta nahiz eta soinu aldetik ez sobera ona izan, esperientzia ona izan da.

Azkeneko ekitaldia bertso afari bat izan zen Amuriza eta Peñagari-kanorekin. Herrian egiten den bigarren bertso afaria dugu hau, lehendik ez baitzen halako ohiturarik, baina jendearen gustokoa suertatu da eta honetan ehun bat lagun bildu ziren.

EZKONTZAK

Pedro Miguel Barrenetxe Iparrea eta **M^a Inmaculada Sanchez Sanchez**, Azpilkueta eta Iruñekoa, abenduaren 9an.

Francisco Javier Iriarte Urdaniz eta **Miren Josebe Arrieta Zubillaga**, Arizkun eta Donostiakoa, abenduaren 11n.

Miguel Angel Latasa Vasallo eta **Marta**, Sunbilla eta Madrilgoa, abenduaren 9an.

JAIOTZAK

Eustakio Mindegia Mutuberria, Ezkurrakoa, urriaren 14ean.

Ainara Salaberria Goizueta, Goizuetakoa, azaroaren 18an.

Oihan Lujanbio Apeztexea, Goizuetakoa, azaroaren 26an.

Jose Antonio Etxeberria Osakar, Zigakoa, azaroaren 23an.

Jon Maritorea Zenoz, Gartzaingoa, azaroaren 26an.

Ilune Cambra Rodriguez, Lesakakoa, azaroaren 22an.

Ugaitz Elizalde Bereau, Iturengoa, urriaren 27an.

Garazi Vicente Zapiain, Berakoa, abenduaren 2an.

Unai Altzuguren Arregi, Etxalarkoa, azaroaren 15ean.

Ibai Etxeberria Burlada, Arantzakoa, abenduaren 2an.

HERIOTZAK

Fermin Altzuri Bereau, Leitzakoa, azaroaren 23an, 80 urte.

Delfina Galindo Bandres, Doneztebekoa, azaroaren 27an, 96 urte.

Maria Oiza Rienda, Elizondon, azaroaren 29an, 80 urte.

Bernardo Zubieta Jaurena, Erratzukoa, abenduaren 2an, 85 urte.

Bienvenida Redin Munarriz, Elizondon, abenduaren 6an, 85 urte.

Micaela Cordoba Jauregi, Amaiurkoka, abenduaren 9an, 86 urte.

Robert Aspirot, Sarakoa, abenduaren 6an, 73 urte.

Jean Baptiste Antxordoki, Sarakoa, azaroaren 23an, 67 urte.

Maria Gonzalez Baleztena, Berakoa, abenduaren 1ean, 89 urte.

Juan Indaburu Irigoien, Berakoa, abenduaren 4ean, 66 urte.

Eugenio Errandonea Irazoki, Berakoa, abenduaren 6an, 78 urte.

Gumersinda Diez Santamaria, Berakoa, abenduaren 9an, 79 urte.

Prudencia Makuso Telletxea, Berakoa, abenduaren 12an, 79 urte.

Severiana Telletxea Sarratea, Doneztebekoa, azaroaren 22an, 76 urte.

Fermin Altzuri Bereau, Arantzakoa, azaroaren 23an, 80 urte.



SANTAMARIA Jatetxea

**Urtezahar gauean
afariak ematen dira**

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



BLANCO ANAIK, S.L.

MARMOL eta GRANITOAK

Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052

IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390



BERTIZKO TURISMO PARTZUERGOKO MERKATARIEN ELKARTEA

Partzuergoko plaka ikusten duzun dendetan zure erosketak egiteagatik, **Torremolinosa** aste bateko **3 bidai** bikoitzen zozketan parte hartzeko aukera izanen duzu

3 izarreko hotelean, mantenu osoz eta desplazamendua hegazkinez.

Bidaia 1996ko urtarrila-otsailan izanen dira.
Zozketa 1996ko urtarrilaren 15ean egingen da.



duten dendetan konfida ezazu!

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Mafarroa eta	
Urgentziak.....	088/061
Ogasun Zentruak	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe.....	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza.....	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua.....	246750
Virgen del Camino	
Erresidentzia.....	109400
Gurutze Gorria.....	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea.....	614600
Gipuzkoako ospitalea	460299
Erresidentzia.....	453800
Anbulatorioak	
Irun.....	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz.....	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Doneztebe.....	450475
Elizondo.....	580924
Lesaka.....	637404
Suhiltzaileak	
Orono ² Mugairi.....	592255
Garraioak	
Bidasotarra.....	631150
Baztanesa.....	580129
Leitzarar.....	515018
Aberiak:	
Iberduero.....	450335 / 450336

Doneztebeko 'Kurkuxak' taldeak irabazi zuen Nafarroako V. Euskal Kantu Txapelketa

Leitzako 'Tribua' eta Iruñeko 'Kontrapas' sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuan. Bakarlarietan ez zen saririk eman eta bikotetan Burlatako Ordoki eta Ilundainentzat izan zen lehen saria



Goian Doneztebeko Kurkuxak. Ezkerraldean Leitzako Tribua

Jende ugari bildu zen Doneztebeko finalera. Maite Idirin, Amaia Zubiria, Koldo Pastor eta Fermin Iriartek osatutako epaimahaiak saririk eman gabe utzi zuen bakarlarientzako atala. Bikoteei dagokionez, Burlatako Ordoki eta Ilundainek eskuratu zuten Euskal Herriko Txapelketarako pasea. Bigarren saria Lekunberrikoentzat izan zen eta hirugarrena Altsasukoentzat. Taldeetan, Doneztebeko Kurkuxak irabazi zuten 'Lurra' kantuarekin. Leitzakoek ere kantu berdina kantatu zuten, eta beraientzat izan zen ikusleek emandako saria. Arantzako taldeak eta Arturo Kanpiongoek sari bereziak eskuratu zituzten.



M^{re} Carmen Irungaraik eta Joseba Igarabidek egin zituzten aurkezle lanak Doneztebeko finalean.



**HIRI ARTEKO, ESTATU
BARNEKO eta
NAZIOARTEKO BIDALKETAK**

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI
Tfnoa eta Faxe: 592179

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

EGUBERRIETAKO ERREGALOAK:

*Pelutxeak, bitxiak, zeramikak,
sasoi honetako arropak
eta osagarriak.*

Marka bakarra hobetu zen Nafarroako Herri Kirol Errekorren jaialdian

Lakuntzako Patrizia Lopez de Zubiriak aitzineko errekorrean baino lau segundo guttiagotan bildu zituen hogeit hamar koxkorak

Abenduaren 4an burutu zen Arbizun Nafarroako Herri Kirol Errekorren jaialdian. Hasieratik berri txarrak izan ziren polikiroldegian, izan ere, Leitzako Sara Legitarren aita aurreko egunean hil baitzen eta minutu bateko ixilunea burutu zen. Kristina Saralegi, aizkora errekorra ezartzeko asmoa zuen, baina ez zen plazaratu.

Lanean hasi ziren lehenak, Berako Pikabea anaiak izan ziren arpa-nean eta iaz egindako markatik urruti, ia bi minutura, gelditu ziren. Bitartean, bertze bi proba burutu ziren. Kozkor biltzean, Lakuntzako Patrizia Lopez de Zubiria eta Lesakako Leire Portuk hartu zuten parte. Bakoitzak 20 kozkor bildu behar zituen eta hautsi



Patxi Larretxea sasoi betean hasi zen baina azkenean ito egin zen Egin

beharreko marka 2'31"takoa zen. Patriziak lau segundutan hobetu zuen aipatu marka eta Leire ere nahiko hurbil gelditu zen, bi segundutara alegia. Harrijasotzen Arraiozko Patxi Larretxea ari-

tu zen. Ongi hasi zen baina errekorra hautsiko zuela zirudienan ito egin zen eta 27 jasoalditan gelditu zen.

MARKA ONIK EZ

Ondoren lastoa, ingudea, orga eta zakularien txanda izan zen.

Lasto altxatzen Miguel Angel Etxarte igantziarra aritu zen. 16 jasoaldi egin behar zituena marka hobetzeko eta 14 bertzerik ez zituena egin. Ingudea 79 aldiz altxatu zuen Jose Antonio Loiarte zu-

bietarrak, baina errekorra 86tan dago. Orga jokoan Miguel Angel Etxegarai beratarak zorte txarra izan zuen, bigarren itzulia ematen ari zenean orgaren gupilak lurra ukitu baitzuen. Berriozarko zakularietaz gauza bera erran daiteke, aldaketa egiterakoan zakua lurrera bota baitzuten, errekorretik 9 segundutara geldituz.

Proba konbinatuan Arraioz eta Ultzamako taldeak aritu ziren, biak errekorretik urruti geldituz. Aizkora Donato Larretxea eta Mikel Mindegia hartu zuten parte. 2 kanaerdiko zutik eta 4 etzanda moztu behar zituen bakoitzak. Larretxea nagusitu zen proban, baina iaz Mindegia egindako markatik (11'31") minutu batera.

Kristina SARALEGI, aizkolaria:

«Ez da neskari ikusten hasteko asmotan eta etorkizuna gaizki ikusten dut»

■ **Noiz hasi ziren aizkolaria gisara?**

■ Aurreneko aldiz Britainian plazaratu nintzen, 16 urte nituela. Orduan 45 ontzako enbor bana moztu genuen nik eta Maribi ahizpak. Euskalerrian lehen plazaratzea Barañainen egin nuen.

■ **Entrenatzeko nola moldatzen zara?**

■ Astean hiru aldiz aritzen naiz aizkora Iruñeko zerrategi bate-

an eta baserri ondoan daukagun gimnasio txiki batean gimnasia pixka bat egiten dut. Mendira, berriaz, egunero joaten naiz ordu bateko buelta ematera. Nartxi anaiak esaten dit entrenamenduak nola egin.

■ **Emakumezkoen artean aizkorak badu etorkizunik?**

■ Etorkizuna nahiko gaizki ikusten dut, neska gutxi baikaude, ahizpak ere utzi egin-

go du seguruenik. Pena ematen dit ez delako inor ikusten hasteko asmotan eta pentsatzen dut neronek ere, urte batzuk pasata utzi egingo dudala.

■ **Zer gisako lanetan aritzen zara ongien?**

■ Azaleko lanetan hobeki aritzen naiz, baina, presaka hasten naizenean oso gaizki egiten dut. Jendearekin ere urduri jartzen naiz.





Idoia Mariezkurrena atleta labaiendarra Nafarroako kirolaririk onena izendatu dute

Idoia Mariezkurrena labaiendarrak jaso du abenduaren 1ean Nafarroako emakumezko kirolari onenari dago-kion saria.

Idoiak 25 urte ditu

eta jabalina jaurtiketan aritzen da, gaur egun estatuko txapelduna de-larik espezialitate ho-netan. Labaiendarrak onartu duenez, "arras kontent nago, nahiz eta

saria ongi baloratzeko egun batzuk pasatu be-harko diren".

Gizonezkoen arte-an, Miguel Indurain txi-rindulariak jaso zuen saria hirugarren aldiz.



Pentsio Planak

ETORKIZUNA SEGURTATU

DESGRABATU

Caja Rural arekin

Oraintxe da DESGRABATZEko momentua, ETORKIZUNA SEGURTATZEN duzun bitartean. Nafarroako Caja Rural-ek bere Pentsio eta Jubilazio Planak eskaintzen

dizkizu, desgrabazio fiskal altuena eskaintzen dizkizun produktuak, alegia. Zatoz Caja Rural-era. Zure beharretara egokitzen diren soluzioak eskainiko dizkizugu.



CAJA RURAL DE NAVARRA

Berako XXIII. Pilota txapelketa

laister hastekoa da. Hiru modalitatetan jokatu da. Eskuz binaka, benjamin, alebin, infantil eta jubenil mailetan. Palaz larruzko pilotarekin, adin mugarik gabe. Palaz gomazko pilotarekin, bi mailatan ba-natuko dira.

Maika Ariztegi

laisterkalari ituren-darra forma onean dabil hilabete ho-netan. Iruñako Hi-ru-Herri eta Tafa-lako Peñen kros-sak errex irabazi di-tu eta San Silvestrea prestatzen ariko da.

Jon Bru

Berako txirrindula-ria afizionatu mai-lako Caja Rural tal-dean arituko da da-torren urtean. Aurten jubeniletan CSI Transformados taldean aritu da, bi karrera irabazi di-tu, seitan bigarren izan da eta bertze horrenbertzetan hi-rugarren.



Josetxo Telletxea

arraioztarrak iraba-zi zuen abenduaren 10ean 3. mailako Nafarroako aizko-larien txapelketa. Rafael Untxalo itu-rendarra hirugarre-na izan zen.

AGENDA EGUNEZ EGUN

KULTUR ZIKLOA

MALERREKA

Abenduaren 27,
28 eta 29an.

Abenduaren 27an
11etan Legasan potto-
kak eta zaldiak. 5etan
Narbarten ipuin konta-
lariak. Abenduaren
28an Zubietan, arrat-
saldeko 8etan Kasketa
kabareta antzerki
saioa. Abenduaren
29an, Iturenen, 5etan
pelikula emanaldia
eta ziklo honi akabila
emateko Donamarian,
arratsaldeko 7,30etan
ekitaldia eta afaria.

KONTZERTUAK

LESAKA

Abenduaren
30ean Gaueko
11etan, 'Deabruak
Teilatuetan' taldea
Atxaspi ostatuan.

DIAPOSITIBAK

DONEZTEBE

Abenduaren
21ean. Malerrekako
Euskaltegia (IKA),
arratsaldeko 6,30etan
diapositibak Esther
Mugertza eta Amaia
Elosegiren eskutik.

ZINEA

DONEZTEBE

Abenduaren 27tik
29ra eta hilbeltza-
ren 3tik 4ra hau-
rrendako pelikulak
Zinean, arratsaldeko
5etan.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Usoak saltsan

Osagaiak

2 dozena egiteko

• 4 uso • 8 baratxuri • 6 tipul •
12 azenario • 2 sagar • ardo
beltza litro 1 • 8 ogi xerra
serbitzerakoan xigortuak ema-
teko •

Prestatzeko manera

Usoak irinean pasatu eta ontzi
batean prexitzten jarri behar di-
tugu. Gainerako osagaiak ongi
xehetu ondotik, orden honetan

botako ditugu usoen
gainetik: lehenik bara-
txuriak, gero tipulak
eta azenarioak, eta az-
kenik sagarrak. Dena
gorritu ondotik ardoa
erantsiko diogu eta ez-
ti-ezti egosten utziko dugu. Salda
gehiago behar duenean ur pix-
ka bat botako dugu eta uso ba-
koitza ongi egosten ari ote den
zainduko dugu. Egosiak dau-
denean ateri eta bertze guzia

ura galtzen utziko dugu, gero
pasapurean pasatzeko. Ogi xe-
rrak xigortu eta mahaira atera-
tzeko ontzian, usoak eta ogi xe-
rrak itxuroso jarriko ditugu. Uso-
en gainetik saltsa bota.



Carmen
IRIARTE

Pierresenea
Jatetxekoa
•ORONÓZ•

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

• Zerrikumea (20 kilokoak):
6.400 pzta.
• Zerri gizona (95-100): 180
pzta./kilo
• Zerramak: 125-130 pz-
ta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

• Aretze gizenak:
• Idixkoak: Pzta./kg. Kanal
Extra 560
1.koa 540
2.koa 520

• Urruxak: Pzta./kg. Kanal
Extra 570
1.koa 550
2.koa 520
Oharra: Prezio hauek 300-340
Kg. kanalean dauzkaten idixko
eta 200-250 kg. dituzten urru-
xentzako.
• Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 20.000 eta
idixkoak 28.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 32.000 eta
idixkoak 45.000 Pzta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 400 Pzta./
Kg. Kanal. Behi gorri ona: 470
Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

• Bertako sagarrondoa 950.
• Udareondoa 950 pzta.
• Gereziandoa 1.050 pzta.
• Aranondoa 1.050 pzta.
• Muxika 870 pzta.



❖ BARAZKIAK ❖

• Porruak zientoa 300.
• Piper txorizero zientoa 800.
• Piper morro zientoa 800.
• Piperminak zientoa 600.



koxkonta



Ezkontza,
bataio eta
bileretarako
leku egokia

Deitu
erreserbak
egiteko


Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

Haurren janaria lehenengo urtean

Alditik aldira inportantzi handiagoa ematen zaio haurren janariari. Hau oinarritzko gauza baita bizitzan zehar sortzen diren zoritxarreko alerjiak, aginar, arterioesklerosi, gehiegizko tentsioa eta beste gaitz mordoxka uxatzeko.

Bost-sei hilabetetarako janari hoberena titia ematea dela esateko arrazoi asko dauzkagu. Amaren esneak ematen dizkio umeari behar duen janaria eta defentsak; merkeena da eta beti prest dago. Titia emateak bularreko minbiziaren arriskua gutxitzen dio amari eta ama-semearen artean hartueman sakonak sortzen ditu. Amak, berriz, denboraldi honetan ez luke erre behar, kafea eta beste bixigarriak baztertu behar lituzke eta ahalik eta botika gutxien hartu.

Ordezko esneak erabiltzen dira titia hutsa nahikoa ez denean. Batzuk "hasierako" esneak deitzen dira eta beste janaririk ez da behar lau-sei hilabetetarako. Besteak "jarraipeneko" esneak deitzen direnak, gainerako janariak sartzen hasierakoan, haurrei ematen



Amaren esneak ematen dizkio umeari behar duen janaria eta defentsak, merkeena da eta beti prest dago

zaizkienak dira. Etorkizunean umetxoari arazoak murritzeko, janariak zein hilabetetan ematen hasi behar dugun aipatuko dugu orain:

- **Zerealak:** Glutenik gabe 4.- 5. eta glutenarekin direnak 6.dik aurrera.
- **Frutak:** 4.-6. eta beti esne edo yogurrekin la-

gunduak 7. hilabetetarako.

- **Esnekiak:** Yogur, gazta berria, petit suisse, 6. hilabetetarako.

- **Barazkiak:** 6. hilabetetarako. Espinaka, azenario eta erremolatxa lehenengo urtean hobe da ez ematea, nitrito asko dutelako eta giltzurdinak zaintzeko.

- **Haragia:** 20-40 gramo eta beti egosia. Oilaskoa 6.-7. Arkumea eta zekorra 8. hilabetetarako.

- **Arraultza:** Gorringoa 7.-8. hilabetetarako eta zuringoa 9.-12.ean. Beti egosiak.

- **Eltzariak:** 8.-12. hilabetetarako (haizezuak dira). Ez da komeni janari hauei azukre, ezti edo gatzik erainstera.

JOSE JAVIER ETXEBERRIA
MEDIKUA. GOIZUETA

Titia emateak bularreko minbiziaren arriskua gutxitzen dio amari eta ama-semearen artean hartueman sakonak sortzen ditu.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Abenduaren 2tik urtarrilaren 8ra

Arizkunenea Kultur Etxean Silvia Etxandi margolariaren lanen erakusketa.

ZINEA

DONEZTEBE

Abenduaren 23-25ean zine aretoan

'Dos tontos muy tontos'.

Abenduaren 21-urtarrilaren 1ean zine aretoan

'Partida de ajedrez'.

Urtarrilaren 6-7an zine aretoan

'Rob-Roy'.

LEITZA

Abenduaren 22-23an zine aretoan

'Geronimo'.

Abenduaren 29-31n zine aretoan

'Forrest Gump'.

Hilbeltzaren 7an zine aretoan

'...y en Nochebuena se armó el belén'.

GUARDIAKO BOTIKAK

Abenduaren 18tik 24ra

Lesaka, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.

Abenduaren 25tik 31ra

Bera, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

ttipi-ttapa

Ameriketara bidaltzea erdi prezioan gure bitartez



Franko Kontzertatutari esker, errebista berbera guk bidali ezkeror, zuk bidaltu baino erdi prezioa kostako zaizu.

Interesatua bazaude, deitu

Iparaldetik deitzeko 19-34-48-631188
Hegoaldetik deitzeko 948-631188 ra

ETXEBIZITZAK

BERA. Pisu bat alkilerrean behar baduzu deitu 630557 **ra.Ramon.**

BERA. Pisua salgai. **630686** (arratsetan).

BERA. Herrian dagoen etxea salgai dut, 1.000 m²ko lorategiarekin. **631422.**

SUNBILLA. Etxe moblez-tatua alokatzen da. **634551.**

ZUGARRAMURDI. 179 m²ko baserria salgai, 1,29 Hektareako kotoarekin, iturri eta guzi. Baita 23 area-ko belagia ere. **599119** eta **580537.**

DENETARIK

Kartelak, buzoiratzekopa-perak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten ditugu. Merke eta azkar. **631188.**

ARIZKUN. 10-12.000 m²ko lur eremua salgai. Dena zelaia da. Urtsuako Jauregiaren ondoan. **580346-453090.**

IRUÑEA. Txantrea auzoan neska bat behar da pisua konpartitzeko. **151505** (arratsaldetan).

BARAÑAIN. Neska bat behar da pisu bat osatzeko. 11.000 pezeta eta gastuak. **181580.**

Teilak salgai Leitza. Prezio onean. **510204** (eguerdi eta iluntzetan).

Iruñean gela bat alokairuan emanen nuke. Hobe neska bada. **450428.**

Giltxaur edo **gerezi** plantak salgai. **453037** (3etatik 4etara).

Wasler markako **sukalde kalefaktorea**, 60x50 neurrikoa daukat salgai. Etxebizitza bateko kalefakzioa eta ur berorako nahikoa. Oso egoera onean eta oso merke saltzen dut. **510065** (Leitza).

200 litroko **gasoi** depositoa salgai. **Bi butaka** ere salduko nituzke. **631239.**

Bodega bat saldu edo alokatzen da Lesakan. **637453.**

Artoa miaurtzeko makina salgai. **630994.**

Esnea hozteko 200 litroko tankea salgai, Alfa-Laval markakoa. **581023.**

Diapositiba proiektorea salgai. Kinderman Afs markakoa. Bi aldiz erabilia. Prezioa: 11.000 pzt. **393067.**

Argazki kamara salgai, Pentax Me Super markakoa, Exakta 28-70 objektiboarekin. Prezioa: 30.000 pezeta. Beste objektibo batzuk ere baditut. **393067.**

Etxea eraikitzeko terrenoa

erosinahi dugu, Baztan edo Malerrekan. **393067.**

Eguberrietako pinuak salgai, 1.000 pezetan. Norberak berea aukeratzen ahal du. **637810** (Patxi).

Haritz amerikanoak eta **gaztain** plantak salgai. **450888** (eguerdi eta arratsetan).

Akordeioa salgai. **637306** (arratsetan).

Bikainoetako **eskoopeta** salgai. Arruntarina da. 15.000 pezetan. **387017.**

Esnea hozteko tankea salgai, 320 litrokoa, oso egoera onean. **599211.**

LANA

Erizain titulatuak, adineko jendea zaintzen lan egingen luke. Esperientziarekin. **630578.**

18 urteko neska lan bila dabil. Lesakan edo inguruetan: Haurrak edo adineko jendea zainduko nuke. Ostalaritzan ere arituko nintzateke (bainan ez daukat esperientziarik). **637121** (Idoia, arratsaldeko 6etatik aitzinera).

Neska batek haurrak zaintzen, etxeko lanetan edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingen luke. Esperientziaduna. **637346.**

Pintorea eskaintzen da era guzietako pintura lanak egi-

teko. Aurrekontuak konpromisurik gabe. **908.674429.**

Karrerako **bizikleta** BH markakoa eta Action modelokoa salgai, estrenatu gabea. **627623.**

IBILGAILUAK


SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak **erosiko** nituzke. **Eskura** ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

Renault 11 GTL kotxea, NA-S matrikuladuna salgai, egoera onean. **580649** (1,30-3etara eta gaez).

Motoa salgai, 309 Cota markakoa. **630686** (arratsetan).

AZIENDAK

Artzai txakurra salgai, 5 urtekoa eta arditan dakiena. **943-492730.**

Hilabeteko **4 zakurkume** oparitzen ditut. **630589.**

Siberiar Husky arrazako **6 zakurkume** salgai. **631060.** Rafa.

Astoa salgai, lanean ongi hezia. **397015** (eguerdi eta ilunabarretan deitzeko).

Zakurkumeak salgai, erbi, koneju eta basurde ehizakoak. **585008.**

Zakurkumeak salgai, es-

painiar bretoi arrazakoak, pedigreeekin. **725574** (arratsaldeko 7etatik goiti) eta **301102** (lanekoa).

Ehiziko bi zakurkume salgai. **451645.**

AGURRAK

Berroetako Martin Juani-korenari: entzun dut hor nonbaitezkondu zarela, al-dizkari honen bitartez aunitz pozten naiz. Zoriontsu izan eta zoriontsu egin zure emaztea. Zure lagun haundia izandako bat. Badakizu nornaizen? Agur bero bat. Ezetz asmatu!

Lesakako Unai Almandoz: Non arrautu duk horrelako neska moñoña eta maja? Ongi kuidazak, bertzela eskautuko zaik.

Alfredo A., Iñaki O. eta JJ O.ri: Euskal Herriko mutilik politenak zarete.

Berako Vanesari. Aski duzu hainbertze ateratzeari. Kontuz ibili!

Etxalarko Itziar Etxarteri zorionak (abenduko 6) bere lagunaren partez eta ea suerte pixka bat daukazu zuk dakizun batekin.

Berako Mikel Endararen partez Maria Hernandezeri oso guapa zarela.

Berako Maitane eta Maidarren partez Valverde garaileari muxu haundi bat.

JAURENA
Elektrogailuak

MASTER Katearen
garantiarekin

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON

Rikardo Baroja, 12 • **BERA**
Tfnoa: 631217

GURIA

DROGERIA
LURRINDEGIA
OPARIAK

*Eguberri zoriontsuak
opa dizkizuegu*

Altzate, 37 • **BERA**
Tfnoa: 631490

zizellu

Moble zaharren
salerosketa

Baldin baduzu moble
zaharrik salgai, deitu

☎ 45 23 32 - 45 20 56
Etxeandia etxea
ELBETEA

ttipi-ttapa

6.200 harpidedun
21.000 irakurle

ttipi-ttapa
Zure klienteek
ikusiko dute
zure publizitatea

Zure semeak behar duen instrumentu musikal hoberena aurki dezakezu finantzaketa hoberenarekin.

Moeta guztietako instrumentuen erakusketa haundiena:
Teklatuak, saxofoiak, tronpetak, bateriak eta abar.

Piano, akordeoi eta trikitixen importatzaile zuzenak gara. Lantegi prezioak.

Erakusketako
1.400 m²

Errekargurik gabeko
finantziaketa
24 hilabete arte.



**Musical
Tomas**
MEGADENDA

20 urte zure zerbitzuean

C/ Asunción, 4 y 6 • Tfños. (948) 26 85 53 -75 • 17 07 11 • Fax. (948) 17 03 81 • IRUÑA

SEKULAKOA GURPILAK

5.950

pezetatik aitzinerat

paratzea eta berdintzea

BARNE



RENAULT

Berehalako harrera, aitzinetik ordua
eskatu gabe auto marka eta modelo
guzientzat



NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA
145/80/13	155/70/13	165/70/13	175/70/13	185/65/14
5.950	6.835	7.715	8.350	9.970

BEZa barne

PEDRO GARMENDIA, S.A.

Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 **ELIZONDO**


TALLERES SANTESTEBAN

Leitzako Errep., 1. km.a - Tfnoa 45 02 82 **DONEZTEBE**

SEMPER HNOS., S.L.

Irun-Iruña Errep. - Tfnoa. 63 06 21 - **BERA**

Eskeintza baliagarria abenduaren 31a bitarte



Polo Berria

Desberdina da,
bere kalidade, fidagarritasun,
kapazidade, segurtasun eta prezioarengatik

1.295.000 Pta.

Polo Berria. Volkswagen-eko itikiak xume izatearen haunditasuna erakusten du. Kanpotik eta barrendik, dotorea eta dinamikoa, egiazko Volkswagenak bezalaxe. Polo Berria maniobratzeko goxoa da, segurua eta barrendik lekutsua. Volkswagen bati dagokion fidagarritasuna, ekonomia, iraunkortasuna eta kalidade haundiko teknika frogatu ahal izanen duzu berekin.

BEZa, garraioa, matrikulatze zerga eta promozioa prezioan sartuak. Eskaintza baliagarria hilabete bukaera bitarte.



Polo Berria


Volkswagenen kontzentratua

SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea • ☎ 450354 / 450759
D O N E Z T E B E

MARTIKO

Gastronomia gustoko baduzu,
Eguberriko otorduetan MARTIKOrekin batera urrun ailegatuko zara



GURE BASERRIKO PRODUKTUAK

- Ahate gibela
- Urdaiazpikoa
- Ahate paparra
- Ahate hegala
- Ahate izterrak
- Izoki keztatua

MARTIKOren
zuzendaritza eta langileok
eguberri on eta zoriontsua
desiatzen dizuegu

Zalain Poligonoa, Bera (Nafarroa)

Tfnoa: (948) 63 07 00

Faxa: 63 12 13